

81

4 euro • 2003ko URRIA euskal heziketarako aldizkaria

# hh

## hik hasi

ELKARRIZKETA: ANJELES IZTUETA •  
ESPERIENTZIA: BIGARREN HEZKUN-  
TZAKO IRAKASLEAK • EKARPENA:  
BIRAKUSI • ANIZTASUNA: SALT  
SOLIDARIOA • ASSA IKASTOLA



GAIA

# Euskal testu liburugintza

XXI. mendearen atarian





# BILDUMA

B A T E L A S A I L A

# BERRIA



Batek itsasoa  
dauka sukaldean  
eta besteak autoa.  
Bi ipuin, zein baino  
zein politagoak.







8

gaia

## EUSKAL TESTU LIBURUGINTZA XXI. MENDEAREN ATARIAN

Bego a Bilbao, Gurutze Ezkurdia eta Karmele Perez Urraza EHko irakasleek ikerlan bat egin dute testu

liburuaren inguruan eta horren ondorioak aurkeztu zituzten Hik Hasi Udako Topaketan hasiera ekitaldian.



16

elkarrizketa

## ANJELES IZTUETA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua bere legegintzaldiaren ekadorera iritsi da eta galdione bat egin eta solastera gonbidatu dugu.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

## EUSKAL TESTU LIBURUGINTZA XXI. MENDEAREN ATARIAN

Begoña Bilbao, Gurutze Ezkurdia eta Karmele Perez Urraza

16 elkarrizketa

## ANJELES IZTUETA

24 esperientzia

## Nola irakasten dute DBHko irakasleek?

Arkaitz Lareki

28 ekarpena

## Birakusi aldizkaria eta web gunea

30 esperientzia

## Ipolagun taldeak Mexikoko haurrei laguntzeko deia egiten du

31 kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

## Egin dezagun Salt solidarioa... baita helduen hezkuntzan ere

Itziar Aramaio

35 berriak

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!

## Arabar Errioxako Assa ikastola

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilá eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08

Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ixiar Elizaguirre Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Pito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basuko, Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urraza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otalo eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu Diseinua: TRAM Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2003/ IX/30. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

# Ikasturte berriari harpidedun berriak

**hik hasiren** harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....  
2. Deitura .....Tel.:.....  
Helbidea .....Posta Kodea.....  
Herria.....Herrialdea.....  
Ikastetxea.....Herria.....  
IFZ-NAN .....

## Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**HARPIDETZA SARIAK**  
(BEZ barne)

**30 euro**

**hik hasi**

Euskal  
heziketarako  
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59  
Aguila eraikina 1. solairua  
20.018 DONOSTIA.

**GIPUZKOA**

Tel: 943/ 37 14 08  
Faxa: 943/ 37 21 54

**Natura**




Marcelo Zelaieta 75  
948 131044  
Fax 948 131044  
info @ natura.com  
www.natura.com



### Iruñea ezagutzeko beste aukera bat

Argatik bi pertsonentzako kanoatan bidaiatxo bat egiteko aukera eskaintzen dizuegu, aldi berean ingurumen naturala eta historikoa ezagutzuz.

Adina: 14 urtetik gora.



# editoriala

## urria

Ikertzeko, hausnartzeko eta proposamenak egiteko garaia da. Abia gaitezen !



Parte-hartzea, elkar-tasuna, gertuko gestioa, jende guztiak hezkuntzarako duen eskubidea, ikuspegi kritikoa eta abarren defentsa ezinbestekoa da heziketa aurrerakoietan.

Hasi da ikasturte berria, hik hasirentzat bederatzigarrena izango dena.

Aurreko ikasturtean bezala, aurreten ere hezkuntza aldaketa, eskaera eta proposamen ugari jarriko dira mahai gainean. Dagoeneko mahai-gaineratu dira batzuk.

Iparraldeko ikastoletan iaz baino %5 ikasle gehiago matrikulatu bada ere, irakasle bat gutxiago onartu die hezkuntza administrazioak. Hori dela eta, langileak eta gurasoak protesta ekintzak burutzen ari dira.

Ikas-Bi elkarteak ikastetxe publikoentzat euskal ereduak, D ereduaren antzekoa, eskatu bazuen ere, ez da onartua izan eta aurrera begira orain arte izan dituen ereduak eskaintzen jarraitu beharko du.

Nafarroan, D ereduaren hasi diren ikasle kopuruak gora egin duen arren, administrazioak eskualde erdalduneari ongi funtzionatzen ari diren lau ikastolen kontra joko

duela dirudi: Tutera, Lodosa, Biana eta Irunberri. Azken honek, herriko matrikula erdia jasotzen du.

EAEn sortu berria da "Haurreskolak Partzuergoa", 0-3 urteko haurrak eskolatzeko partzuergoa. Gai honi buruz oso ikuspegi ezberdinak plazaratu dira: batzuek diote pribatizazioa dakarrela, administrazioak, aldiz, eredu publikoa indartzen dela, eta zenbait heziketa eredu ahaldu eta eredu asistentziala indartzen dela...

Aldi berean, Lazkaon dagoen zentro bakarra, San Benito ikastola, kilometroak antolatu beharrean aurkitzen da euren hezkuntza beharrei egokiago erantzun ahal izateko.

Eta bestalde, aldaketa sakonak ezarri nahi dira oso epe laburrean: Frantziako gobernuak, "dezentralizazio" administratiboa planteatzen du, eta Espainiakoak "kalitatearen legea".

Honek guztiak ez al digu hausnartetasak batera eraman behar? Zein

izan behar du ikastetxeen eginkizunak? Zein administrazioenak? Nola antolatu behar da hezkuntza?

LOGSEk ikastetxeen hezkuntza proiektuei ematen zien garrantzia, baina helburu horiek lortzeko ez zituen bitartekoak egokitu. Nola lor zezakeen ikastetxe batek bere hezkuntza proiektua izatea ez bazuen benetako autonomiarik beratu garatzeko?

Bestalde, neoliberalismoa defendatzen dutenek autonomia aitzaki bezala erabiltzen dute administrazioei dagokien hezkuntza bermatzailer ardura uzteko eta gastu publikoa murrizteko.

Parte-hartzearen, elkartasunaren, gertuko gestioaren, jende guztiak hezkuntzarako duen eskubidearen, ikuspegi kritikoa eta abarren defentsa ezinbestekotzat jotzen dugunok elkartu eta bide komun bat bilatzen ahalegindu beharko genukeela uste dugu. Zer deritzozue?

# kronika

Frantziako Hezkuntzak eskola elebiduna sustatzeko oztopoak jartzen dituela salatu du Ikas-

Bik, eskola publiko elebiduneko guraso elkarteak.

Frantziako Hezkuntzarekin 1999an izenpetu zuten Hitzarmen Berezia, eta bi urte pasa eta gero jarri zen martxan euskararen irakaskuntza sustatzeko plana.

Gainera, hartutako konpromisoak ez omen dira aplikatu. Thierry Delobel Ikas-Biko lehendakariaren hitzetan,

“Biarritzen, Angelun eta Baionan inkesta bat egin zen eta haurrak eskola elebidunetan eskolatzearen alde agertu ziren guraso gehienak. Geroztik, galde horri erantzuteko ez da gauza handirik egin”. Irakasle postuak sortzeko eta eskola berriak irekitzeko oztopo asko dituzte gurasoek, eskolen nahiaren menpe daudelako.

Adibide batera, orain bi urte Baionako Arenesetako ama eskolanizandako arazoa dago: zuzendariak nahi ez zuelako ez zen eskola elebidunik ireki.



Seaskan ikasleak nabarmen ugartu direnean, Frantziako Hezkuntzak ez du hitzemandako irakasle kopurua jarri nahi

Aurten 1.460 haur inguru izango dira Seaskako Ama Eskolan eta Lehen Mailan. Horietatik 200 ikasle berriak dira. Bigarren Mailak ere gorakada nabarmena izango du ziklo aldaketaren eraginez. Egoera hori dela medio, Frantziako Hezkuntza eta Akademia Ikuskaritzako ordezkariekin bildu zen Seaska. 95 irakasle postu eskatzen zituen Seaskak, eta Frantziako arduradunek, hori ezinezkoa zela esanaz, azken mementoan ahoz onartu zuten 93 irakasle postu ematea Seaskari.

Ahoz emandako hitza jan egin du, ordea, Frantziako Hezkuntzak. Uztai-lean gutun baten bidez jakinarazi zioten Seaskari 92 irakasle postu baino ez zituztela jarriko, alegia, azken bi urte

hauetako irakasle kopuru berbera. Bigarren mailari buruz emandako hitza ere jan egin nahi zuten: 36 ordu gehiago hitzartu zituzten ahoz, eta 19 ordu eta erdi baino ez omen zituzten emango.

Errektoretzarekin bildu zen Seaska irailaren 12an, Bordelen. Tentsioz betetako ordu eta erdiko bilerak hauxe eman zuten: Errektoretzak 93. irakasle postua ez zuela jarriko esan zuen garbi (udan ahoz horixe onartuagatik). Bigarren Mailari dagokionez, ordu kopuru gehiago emango zizkiela onartu zuen Errektoretzak, hain justu udan ahoz adostutako ordu kopuru bera. Bileran Seaskak beste gai bat ere ateratu zuen mahai gainera: Bigarren Mailan titulurik gabe ari diren irakasleen prestakuntza. Legez, irakasleek prestakuntza eskubidea duten arren, errealitatean eskubide hori gauzatzeko modurik ez dute, ez erakunde publikoetan eta ez pribatuetan. Gai honen negoziaketek urte eta erdi bazeramaten, eta azkenean, Bordeleko bilera honetan onartu zuen Errektoretzak irakasleen prestakuntza. Aurten sartu behar du indarrean irakasleen prestakuntzak.

Hain beharrezkoa duten 93. irakasle postua lortzeko, Frantziako Hezkuntza ministroari eskatu dio hitzordua Seaskak. Bordeleko errektoreak gaia negoziatzeko inolako asmorik ez duela ikusita, Hezkuntza ministroarekin aztertu nahi dute aterabidea.

## Gizakiak aberea izaten jarraitzen du, aberen izaera berarekin.

Alasdair MacIntyre



D ereduak gora egin du Haur Hezkuntzan, Nafarroan eta EAEn

Hasi berri dugun ikasturtea bizitzako lehenengoa izango da batzuentzat. 3 urteko hurrek lehen aldiz luzatu dute pausoa eskolara. Pauso hori D eredura gero eta gehiagok ematen du Nafarroan, eta EAEn, berriz, 3 urteko gehienek janzten dute lehen aldiz eskolako mantala D ereduko gela batean. Ikasturte berriak Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren estatistika berriak ekarri dizkigu.

Aurten ere, Nafarroako Gobernuak bere datuetan ez ditu sartu Tuteran, Irunberri, Biana eta Lodosako ikastolatan izena eman duten ikasle berriak, ikastetxe horiek ez baititu "ofizialtzat" jotzen. Zentro horiek kontatu gabe ere, 3 urteko haurretan D ereduko matrikulazioa puntu bat igo da. Orokorrean hartuta, Nafarroan 3 urteko haur gutxiago dago aurten eskolatan, baina D eredua da goranzko joera izan duen ba-

karra, ikastetxe publiko eta kontzertuetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Haur Hezkuntzan gehiengoa D ereduan dabil: ikasleen ia %60k D eredua hautatu du. A ereduan, berriz, gaztelania hutsekoan, ikasleen %10 dabil, eta B ereduan (gaztelania eta euskara) gainerako %30.

Baina adinean gora egin ahala, D ereduan hasitako haur asko beste ereduera pasatzen da. Haur Hezkuntzan ia %60 sartzen bada D ereduan, Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrera ia %29k soilik egiten du Batxilergoa edo Lanbide Heziketa euskaraz. Dena den, bi ehuneko horien arteko tartea urte urte laburtzen ari da.

Adin guztietako ikasleak kontuan hartuz gero (Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergo edo Lanbide Heziketaraino), D ereduak iaz zuen ehunekoa mantentzea lortu du aurten ere. EAEn ikasturte hau %47k egingo du euskara hutsezko ereduan. B ereduak, irakasgaiak gaztelaniaz eta euskaraz eskaintzen dituenak, bi puntu galdu ditu. Gaztelania hutsezko A ereduak, aldiz, hiru puntu egin ditu gora.

Beraz, Haur Hezkuntzan haurgehienak D ereduan hasiagatik, adin guztietako ikasleak kontuan hartuta A eredua da igo dena, hiru puntu hain zuzen. Zenbakiak esateke uzten digute, ordea, zergatik ote diren joera horiek.

"Munduko ahotsak Eusko Legebiltzarrean" manifestua argitaratu du CD-ROM eta guzti Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko ikastetxetan banatzeko asmoa dute, gogotarako material gisa. Manifestua EAEn 15 ikastetxek egingo da, Hezkuntza Sailaren eskariz. Ikastetxe hauetan atzeritik etorritako ikasleak eta bertakoak daude. Gogoeta prozesu batetik atera zuten agiria, eta Eusko Legebiltzarrean aurkeztu apirilaren 7an. "Haur biltzar" berezi bat osatu zuten Legebiltzarrean, 11 eta 12 urteko 75 ikasle bilduta. Horietatik erdiak atzerrian jaiok ziren, eta nork bere jatorrizko hizkuntzan eman zuten mezu bera: "mundua da gure herria, Euskadi gure etxea". Kanpotik etorritako pertsonetikiko eta kulturekiko errespetua eskatu zuten agiri honen bidez, elkarbizitza dela bidea nabarmenduz, herri hau "hemen bizi garenek osatzen dugu"-eta.

Manifestu hura da gaur CD-ROMean argitaratu duena Hezkuntza Saila da. Agiria bederatzi hizkuntzatan dator idatzia: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, alemanieraz, portugesez, polonieraz, arabieraz eta txineraz. CD-ROMan "Zabalik" programaren berri ere agertzen da. Herriarren eta Eusko Legebiltzarrean arteko lotura errazteko programa da "Zabalik". Internet bidez Eusko Legebiltzarrean gertatutakoaren berri izan dezake edonork eta bere iritzia edo proposamenak ere bidali ditzake posta elektronikoz.

Gaurtik, beraz, eskolatan 11 urteko hurrek Legebiltzarreko proposamen txostenak idatziko dituzte etikako eskoletan eta abar.



# Euskal testu liburugintza XXI. mendearen atarian



Ezkerretik eskuinera: Gurutze Ezkurdia, Begoña Bilbao eta Karmele Perez Urraza EHUko irakasleak eta *Euskal testu liburugintza XXI. mendearen atarian* ikerlanaren egileak Hik Hasi Udako Topaketen aurkezpen ekitaldian.





# Euskal testu liburugintza XXI. mendearen atarian

## Ikerketaren oinarriak

Paulo Freire brasildarrak eta Jose Migel Barandiaran euskaldunak esana da, ikerlariak onden bere herrian iker-tzen duela, berarentzat ingurune hori delako ezaguna eta hurbila.

Gu euskaldunak gara, euskaraz mintzatzen garelako, Euskal Herriko bizikide garelako eta baita Euskal Herrian bizi garelako ere.

Europako herririk zaharrenetakoa gara eta, era berean, Europako zein munduko herri garatuenekin bat egiten dugu; garapen teknologikoan ere punta-puntan gaude. Berba batean, herri modernoa gara. Hezkuntza da mundu moderno horretan identitatearen sortzaileen artean garrantzitsuenetakoa eta gizabanakoaren garapenean eragin handia dauka, hain zuzen ere, gizataldeen hizkuntza eta kultura erreproduzitzen dituelako.

Gure ikerketaren xedeetarik bat Euskal Herriari buruz eskolan zein ikastoletan irakasten denak nolako ezagutza erreproduzitzen duen argitzea da.

Ikerketa honetan curriculuma teorikoki aztertuz abiatuko gara, curriculumu ulertzeko moduak hezkuntza zientzien bilakaerarekin batera aldatu izan baitira.

Paradigma positibistak emaitzetan jartzen du garrantzia, eta ezagutzaren objektibotasunaren izenean, curriculumaren izaera soziala aipatu ere ez du egiten. Ikuspegi praktikoa, aldiz, gelako lanari ematen zaio garrantzi handia. Hezkuntzaren eta irakaskuntzaren izaera soziala onartu eta ezagutza zientifikoaren neutraltasuna salatu arren, ez da kolokan jartzen eskolaren bidez irakasten dena. Ikuspegi kritikoa araberakoa, bestalde, curriculumu testuinguruarekin lotuta dago, ez da neutrala. Curriculumaren teoria teoria soziala da, sortzen den gizartearen arabekoa eta interes eta balioen menpekoa. Teoriarik kritikoen defendatzen dutena da curriculumu eskolatik kanpo erabakitzen dela, eta curriculumean inoren intereseko diren edukiak ezartzen direla. Horrela, eskolarako aukeratzeko den ezagutza talde baten eta ideologiaren arabekoa da, arbitrarioa da, baina eskolaren bidez legitimatua, gainbaloratua, eta eskolako edukietatik kanpo geratzen dena diskriminatua izango da, desbaloratua. Hezkuntzaren, curriculumaren edota edukiaren inguruan egindako azterketek, curriculumu eta edukia eraikuntza sozio-historiko moduan ulertzera garamatzate. Young, Bernstein, Lundgren edo Apple izan dira, besteak beste, eskolan lantzen den ezagutzaren edo edukiaren izaera hori azpimarratu dutenak.

Curriculumeko edukien gaineko gorabeherak testu liburuetan ere agertzen dira. Testu liburuetan islatuko da gizartearen ezagutza legitimoa eta benetakoa, egiazko ezagutza moduan ulertu eta onartuko dena. Modu horre-

tan testu liburuak irakasten dutena normaltasun osoz onartuko da, egia balitz legez. Bizitzan, ordea, talde espezifikoak da testu liburuen egilea, ezagutza ofiziala mugatzen duena, ez gizarte osoa. Ondorioz, talde horren ideologia izango da testu liburuetan agertzen den kultura ezaugarriak baldintzatuko dituen

Horrenbestez, testu liburuek, talde jakinen eskuetan dauden neurrian, talde horien ikuspuntua islatuko dutela adierazten dugu, zeren erabili ere errealitatea interpretatzeko euren jokamoldea baitarabilte eta transmititu nahi dituzten ezagutzak aukeratzeko baitituzte.

Torres-ek edukien hautaketan erabili daitezkeen modu edo bideak honela azaltzen ditu:

- Isiltzea: errealitateko zenbait gertaera, pertsonaia, data eta abar edo ez dira aipatzen edo ezabatu egiten dira, benetako datuei eta gertaerei garrantzia ukatuz.

- Gehitzea: gertaerak asmatzea edo datu berriak, ez benetakoak, ematea. Errealitatea aldatu egiten da kasu honetan ere.

- Itxuragabetzea: datuak errealitatea estaltzeko moduan ematen direnean.

- Arreta desbideratzea: benetakoak barik beste datu, pertsonaia edo gertaerak azpimarratzea, egiari arretarik jarri gabe.

Horrela, talde soziokultural txikiak dira galtzaile ateratzen direnak, eurenetik oso gutxi agertzen baita eskolako edukietan.



# G

## Testu liburuaren garrantzia

Curriculum ofizialaren eta irakaslearen bitartean kokatzen da testu liburua. Presta da, erabilerraza, eta horregatik erabiltzen dira asko eskolako lana bideratzeko. Testu liburuak kode idatzia eta ikonografikoa erabiltzen ditu informazioa lantzeko. Biak dira indartsuak, informazio bera hainbat modutara lantzen laguntzen dutelako. Ikerketa honetan kode biak elkarrekin irakurri ditugu, biak era batera, batak dioena besteak azpimarratu edo nabarmendu egiten duelako, edo kontrakoa, gerta baitaiteke idatziak eta ikonoak diotena bat ez etortzea.

Bestalde, testu liburuetak testu idatzian eta ikonografian sasoi bakoitzeko gizartearen balioak, ideologiak edo estereotipoak aurki daitezke. Ondorioz, testu liburuaren irakurketak emango digu sasoiaren sasoiako curriculumaren berri. Oso tresna garrantzizkoa da, datu asko gordetzen ditu eta. Hala eta guztiz ere, ez dugu behar den neurrian baloratzen. Ez dira behar bezala zaindu. Ez dira inon gordeta; ez eskolan, ez argitaletxeetan, ez unibertsitateetan, ez dago testu liburuen fondorik. Ados gaude Choppin-ekin, testu liburua jagotea guztiz bertan behera lagata egon dela dioenean. Desagertze-zorian ere badaude. Euskal Herrian

bertan ere ez dugu aurkitu testu liburuaren bildumarik eta, kasu batzuetan, guztiz zaila izan zaigu behar genuena aurkitzea. Hausnartu beharreko arazoa da hau, ardura hartu beharrekoa, lehengo zein oraingo liburuen errolda egiteke baitago. Uste dugu hain ondare aberatsa, ikerketarako hainbesteko balioa duen liburugintza zein irakaskuntzan erabili den tresneria, berandu baino lehen bildu behar dela. Gizartearen garapenean hain eragin handia daukan eskolak eta bertan erabiltzen diren tresnak eta liburuak zaintzeko premia handia daukagu. Gure eskolaren historia jaso eta gordetzeaz gain, ikerketa bideak zabaldu beharrean gaude.

Choppin-en esanetan, testu liburuaren gaineko ikerketa, batez ere, 1960tik aurrera hedatu da. Edukiaren azterketa harrezkero egiten dela dio, ageriko edukiaren gainean zein ezkutan geratzen den edukiaren inguruan. Esaten denak garrantzia badauka, esaten ez dena ere baloratu beharrekoa da, izan ere, ez presentziak edo absentiak era bateko diskurtsoa baitarama. Ezkutuko curriculumaren bidez, esan barik esanez, errealitatearen aspektu batzuk nabarmendu egingo dira, beste batzuk diskurtsotik kanpo geratuko dira, errealitateari mugak jartzen baitzaizkio. Horrela irakurleari, ikasleari, oinarrizko unibertsoa inposatzen zaio. Beraz,

diskurtsotik kanpo geratzen diren ideiak, kontzeptu edo edukiak zein diren ikertzeak interes handia dauka, ezkutuko curriculumak daukan protagonismoa handia baita.

## Testu liburua ikergai

Braunschweig-eko Georg Eckert institutua da European testu liburuen gaineko ikerketagunerik handiena. Suedian, berriz, Selander-ek zuzentzen duen institutuak parametro sozialek eta instituzionalek duten garrantziaz ikerketa ildo berriak zabaldu zituen, azterketa moduetan ere berrikuntzak ekarriz. Frantzian *Institut National de la Recherche Pédagogique* delakoak garrantzi handia dauka. Ezagunak dira bertan ari diren ikerlariak -Choppin, Chervel.... -baita eurek zuzentzen duten *Enmanuelle* programa ere. Espainian, bestalde, UNED delakoaren eskutik *Manes* proiektua jarri dute abian. Ipar Amerikan ere Shaver, FOX, Hess edo Apple ezagunak dira arazo sozialek edo ideologiek testu liburuetan duen agerpena ikertzen dute eta.

Ondoan agertzen den 1. taulan gure arteko ikerketan nagusiak ikusten dira: historiako edukia, deskribapen orokorrak edo garapena azaltzen dituzte.

1. taula: testu liburuen gaineko ikerketak

GAIK	EGILEAK
Historia (1876-1979): Ideologia, historiografia	Lopez Atxurra
Munduko Iparra/Hegoa: Hirugarren mundua desegokia	Argibay & Celorio & Celorio
Euskal Curriculumaren presentzia Hizkuntzaren aberastasuna	Erriondo & Garagorri & Isasi
Gai sozial eta kulturalak	Murua Uria
Liburuaren deskribapena	Calleja / Monasterio
Testu liburuen garapen historikoa	Dávila Bálsera Dávila & Erriondo
Bizkaia testu liburuetak ikonografian	Bilbao & Ezkurdia & Perez
Kultura erreferenteak oinarrizko hezkuntzako curriculumean Euskal Herriko eskoletan	Bilbao Bilbao
Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testu liburuetan	Perez Urraza
Lurraldea eta Historia Lehen Hezkuntzako testu liburuetan	Ezkurdia Arteaga



Guretan edukiaren izaerari heldu diogu, zientzia eta teknologiaren garapena, edo lurraldetasuna eta historia zein euskal kulturaren definizioa aztertuz.

## Euskal Herrian curriculum desberdinak

Ikerketa honetan, curriculum ofizialaren ibilbidea arakatzearaz gain, Ferry-ren legetik edo Moyano-renetik Euskal Herriari buruzko edukietan curriculum ofizialek nolako eragina izan duten aztertzea jarri dugu helburutzat.

Izan duten bilakaera kronologikoa, lekuan lekuko hizkuntza edo dialektoak irakasteko ardura Frantziako hezkuntza kontseiluak hartu zuela lehenengoz, konturatuko gara, 1951an.. Bitartean, Geografia eta Historiari edo bestelako arloei buruzko aldaketak badauden arren, 1995ekoa da lekuan lekuko hizkuntzaren eta kulturaren irakaskuntza berrizatzeko agindua. Hizkuntza eta dialekto gaietan zein lurraldeari buruzkoetan edo historian, guztietan, estatua da erreferentea, Errepublikak.

Hegoaldera bagatoz, Moyano-ren legea da irakaskuntza sistema espainola ezarriko duena. Aipatzekoa da Bizkaiko Aldundiak sortutako eskoletan euskaraz irakasten zela, baina jasotako kritiken ondorioz eskola elebiduna alboratuta geratu zela. Bitartean, lege frankistaren menpean irakaskuntza guztia gaztelaniaz egingo da. Haur guztien prestakuntza intelektualaz gain, erlijioari eta patriotismoari leku handia eskaintzen zaie. 1975era arte ez dira hizkuntza natiboak irakasteko arauak ematen. Euskararen presentziaren hasiera izango da hau, muga garrantzizkoa, bai pedagogikoki bai hizkuntza aldetik berrizatzeko baten abiapuntua baita. Hegoaldeko lurralde eskualde edo nazionalitate izendatzen dituzten 1982ko hezkuntza legeak, irakaskuntza elebidunaren zabalkundea eta bertan erabiltzeko testu liburuen garapena bultzatu zuenak. Estatuko argitaletxe gehienek euren materialak itzuli edo moldatu egin zituzten eta bertokoek euskaraz sortu zituzten. HSAOL dela-

koaren ondoren Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak curriculum desberdina erabiltzen dute, biak oinarri berekoak.

Irudia: hiru curriculum desberdinak



Horrela, gaur egun hiru curriculum ofizial darabiltzagu Euskal Herriko eskoletan: Eusko Jaurlaritzak argitaratutakoa, Nafarroakoa eta Iparraldekoa, Frantzia osorako balio duena.

### Ikerketarako epeak

Curriculumaren gaineko gertaerak zein gizartearen garapenean izandako gorabehera historiko-politikoek eragin zuzen-zuzena izan dute euskal liburugintzan. Eskola liburua XVI. mendetik erabili diren arren, euskarazkoak XX. mendean izango du garapenik handiena. 1970eko hamarkadan forma eta diseinu berriko liburua sortuko dira, joera pedagogikoen eta aurrerapen teknikoen bultzatuta. Hainbat egileren lanetan euskarazko ekoizpenaren garapena ikusirik, hiru epe edo aro mugatu ditugu gure azterketarako: lehenengoa -1876tik 1974ra doana- Iparraldeketik abiatzen dena, foruen galera eta Eusko Pizkundearen sasoia ere badena. Auzo eskolak eta lehenengo ikastolak, Eusko Jaurlaritza eta euskararen batasuna ere epe horretakoak dira. Eusko Ikaskuntzaren eskutik etorriko dira testu liburu asko. Amaieran Pedagogiaren arloko teorizazio berriak zein Gordailu edo Iker talde pedagogiko berritzaileak sortuko dira.

Bigarren aroak testu liburugintzarako gora bidea dakar. 1975etik 1991ra

bitartean euskarazko irakaskuntza zabalduz doan heinean, testu liburu berriak ekoizten dira. Horren eraginez, Elkar, Erein edo Ibaizabal argitaletxe komertzialak sortuko dira, eta lehenengo talde pedagogikoak desagertu. Hegoaldean euskaraz zein euskarazko irakas-

kuntza arautzen dira, eta euskarazko ikasmateriala bultzatzen da. Sasoi honetan hasten dira estatuko argitaletxeak testu liburuak euskaraz argitaratzen eta euskarazko irakaskuntzan erabiltzen.

Hirugarrenean, 1992tik gaur arte luzatu dugunean, Hegoaldeko lege aldaketak eskolarako liburu asko argitaratzea dakar, gehienak kanpoko argitaletxeen lanak diren arren. Iparraldean ere, talde pedagogikoen eskutik batik bat, euskaraz argitaratzen dira batzuk, testu liburu frantsesetatik moldatuta gehienetan.

### Ingurunea ezagutzeko arloko edukiak aztertuz

Modu integratuan edo modu agregatuan antola daitezke ezagutzak curriculumaren barnean. Lehenengoa da Hegoaldeko curriculum ofizialetan darabiltena, arlo bakarraren barnean -Ingurunearen Ezagueran-, elkarrekin nahasiz ordenatzen baitira edukiak. Iparraldean, ostera, banaka lantzen dira, geografia, historia, edo zientziak eta teknologia. Horrela, ezagutzak modu agregatuan lantzen dira han.

Curriculumaren bidez eskolan irakasten diren ezagutza guztietatik egun Ingurunearen Ezaguera deritzana aukeratu dugu azterketarako, Iparraldean *Géographie, Histoire, edo Sciences et*

*Technologie*-ren parekoa dena. Arlo honetan lantzen dira ikaslearen identitatearen eraikuntza funtsezkoak diren ezagutzak, eta bertotik egiten zaio erreferentzia, bereziki, ikaslearen ingurune hurbilari. Euskal Herria, gaimoduan, arlo honetan jorratzen da; 11 urteko ikasleek lantzen dute, Hegoaldeko Lehen Hezkuntzako 5. mailan eta Iparraldean hirugarren zikloko CM2an. Ikerketa honetan euskaraz argitaratu den guztia arakatu da, euskaraz argitaratu diren testu liburuak hartzen baitira ildo nagusi moduan. Hauen parean erabili diren eta erabiltzen diren erdarazkoak –gaztelaniazkoak zein frantsezkoak– ere aztertu diren arren, konparaketarako, alegia.

Lagina, beraz, honela antolatu dugu: guztira 70 testu liburu XX. mendekoak eta sei oraingoak, 2000tik honakoak. Eurretan 14.318 orri irakurri eta 24.282 ikono neurtu, kokatu eta deskribatu ditugu.

### Testu liburu etako ikonografiaren garapena

Orri eta ikono horiek guztiak arakatu, testu liburuaren garapena teknologiak, pedagogiak eta psikologiako teorizazio berriek eragina izan dutela ikusi dugu. Asko aldatu dira Comenius-en *Didaktika Magna*-tik hona. 1925eko den *Xabiertxo* liburuan, adibidez –sasoiko euskal curriculumaren ikuspegitik osotutakoa eta asko erabilia ikastolen hastapenetan–, testu idatziaren kopurua handia da, gehiago dauka idatzia ikonoa baino. Oro har, epe horretako testu libururik gehien eredu da orriko ikono bakarra izatea. Iparraldeko *Iguzki Lore* oso modernoa da, benetako erradiografiak erabiltzen ditu odolaren, bihotzaren eta horrelakoen funtzionamendua adierazteko. Oraingo testu liburu gehien moduan ikono asko ditu, bi edo hiru orriko.

Ikus daitekeenez, ikonografia bera aldatuz joan da. Azken hamarkadako testu liburu bi alderatuta esate baterako, argazkiekin, mapekin eta eskemekin batera lehen marrazki asko erabiltzen zirela ikusten da. Orain, oster, taula eta marrazki gutxiago dago.

2. taula: ikonografiaren gorabeherak

Agertze itxura	1994		2002	
	EAE	NFK	EAE	NFK
Taula	17,66	16,54	0,96	1,29
Eskema	3,48	4,44	30,99	30,42
Argazkia	23,63	25,43	51,44	50,81
Marrazkia	46,02	44,94	31,95	32,69
Mapa	7,71	7,41	15,02	13,59

Taulan ikus daiteke gora doazela eskemak, argazkiak eta mapak. Argazkiak eta mapak bikoiztu egiten dira eta eskemak zazpi bider gehiago erabiltzen dira. Garrantzia handia ematen zaie oinarriko kontzeptuak adierazteko.

### Euskal Herria testu liburu etan


Gure ikerketan Euskal Herriari dagokion edukia mugatu dugu, eta oraingo honetan hiru multzo aukeratu ditugu azterketarako. Lehenengoan, paisaiari dagozkion ezaugarriak bildu ditugu: mendiak, itsasoa, herriak, baserriak edo hiriak. Ezaugarri horiek guztiak ingurunearen itxura adierazten dutenak dira. Bigarren lekuan lurraldea eta hori azaltzeko erak arakatu ditugu; eta azkenean, pertsonak. Testu liburu etan erakusten diren pertsona batzuk oso ezagunak dira. Zientzialariak, politikariak, historiari lotutakoak, errege-erreginak edo idazleak izaten dira, besteak beste, Lehen Hezkuntzako testu liburu etan aurkitzen direnak. Pertsona horien adina, generoa eta lanbidea ere begiratu ditugu.

### Euskal Herriko mapak

Euskal Herriko lurraldeak edo Espainia edo Frantziako estatuen mugak edo Europako zein munduko lurralde etakoak agertzen diren aztertuta, garbi ikusi dugu, lurraldearen berri emateko mapak erabiltzen dituztela testu liburu etan.

Grafikoa: lurraldeak aroka

Lurraldeak mapetan - Aroka (%tan)



Grafiko honetan ikus daitekeenez, lehenengo aroan, 1974 arte doanean, lurralde guztiak agertzen dira mapetan, Nafarroa Beherea salbu. Hor Nafarroa bakarra dela uler daiteke. Bigarren aroan –1975etik 1991ra bitartean– aurkitu dugu mapa gehien. Sasoi horretako testu liburu etan asko darabilte euskarri hau. Landu Hegoaldeko lurraldeak lantzen dira, ez Iparraldekoak. XX. mendean azken hamarkadara mugatzen den hirugarren aroan ikusten dena da lurral-



de guztiak agertzen direla, baina Hegoaldea gehien, eta Iparraldea gutxiago. Argi dago Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia direla maiztasunik handienarekin agertzen direnak. Hego Euskal Herriko egoera juridiko-politikoak atzeman daiteke horren atzean, lurraldearen antolamendu autonomikoa, alegia.

### Euskal Herriko paisaiak

Lurraldearen irudia diren paisaiak ere erabiltzen dira testu liburuetan. Paisaia lehenengo hamar aldagairik erabiliene saillapenean egon da beti, aroz aro gero eta gorago, mendearen azken hamarkadako testu liburuetan lehenengo lekuan jarri arte.

Paisaia mota guztiak aurkitu ditugu testu liburuetan. Herriak eta hiriak gero eta gehiago agertzen dira; mendiak eta ibaiak edo kostaldeak eta itsasoak maiztasun handia duten arren, testu liburuetako edukiak gero eta urbanoagoak dira. Baserriak, osterak, gero eta urriago direla esan genezake. Kostaldea eta itsasoa erakusten dutenak ere asko dira, eta gainera, oso argazki politak dira. Monumentuek, eraikuntzek edo euskaldunentzako garrantzizkoak diren sinboloek ere badute lekua testu liburuetan. Gernikako arbola eta junte-txea testu liburu askotan dator.

### Testu liburuetako pertsona ospetsuak: generoa, adina, lanbidea

Pertsonetara bagatoz, ikusten da garrantzizkoak izan direla XX. mendeko testu liburuetan, ezen aro guztietan hartu baitute edukiaren % 30 ingurua. Generoari eta adinari begiratuta baieztatuz dezakegu gizonezko heldua dela estereotiporik erabiliena.

Gizonezkoen presentziak garrantzi handia izan du beti, aro guztietan %80tik gora agertzen dira eta. Emakumeak, gehienetan, gizonezkoekin batera agertzen dira. Eurak bakarrik, aldiz, oso gutxitan. Zenbakietara jota, oraingo testu liburuetan %3an daude eurak bakarrik eta %14an gizonezkoekin batera. Curriculumean generoen arteko desberdintasunak zaindu beha-


rra agertu arren, praktikan, eskolan, ez da hori islatzen. Neskentzat mutilentzat baino zailagoa da identifikaziorako eredu egokiak aurkitzea eskolan erabiltzen diren testu liburuetan.

Oraingo joera pertsona gutxiago agertzea da. Amaitu berri dagoen kurtsoko testu liburuetan aurkitu ditugunak, gizonezkoak izateaz gain, botereari lotuak dira: Gaztela Leongo erregeak, Bianako printzea, Averroes...

lekuan Karlos III. Nafarroakorako egiten duen bertsioan, edo Bizkaiko lehenengo kondea Euskadin eta, han, Eneko Aritza, Nafarroako lehen erregea. Baina Nafarroako liburuan datoren Antso Erregeak ez dauka ordezkorik. EAerako argitaratzen den testu liburuan ez da aipatzen Antso Erregea.

Pertsona ospetsuekin jarraituz, ikusi dugu Barandiaran Ramon y Cajal-ek ordezkatzeko duela Nafarroako alean.

Irudia: Cervantes, Hernán Cortés, El Cid Campeador lehen eta orain



Jose Migel Barandiaranek Euskadiko herri sineskera eta tradizio ugari bildu zituen.

Santiago Ramon Cajal izan zen Nobel saria jaso zuen Espainiako lehen zientzialaria.

Frankismoari eusten lagundu zion enciclopedia Alvarez ezagunean zetozen Hernán Cortés, Cervantes eta El Cid Campeador berriro aurkitu ditugu 2002an argitaratutako testu liburu batean. Nola uler daiteke atzeranzko bidaiak hori? Noren historia ordezkatzeko dute? Historiatik kanpo sorturiko pertsonaien moduan agertzen zaizkigu, gaurko estatu uniformearen ikuspegitik moldatuak.

Bestalde, argialetxe batzuek bertsio desberdina dute EAerako eta Nafarroarako. Horietariko batek Lope Garcia de Salazar darabil Euskadin eta bere

Ramon y Cajal zientzialaria da eta Barandiaranen lanbidea tradizioak biltzea dela esaten du.

Lanbidearekin jarraituta, hona hemen sektore aipatuena. Hirugarren arotik ikusita goranzko joera dago honakoetan: komunikabideetan, aisialdian, kulturgintzan, ikuskizunetan, hezkuntzan (eskolan edo ikerkuntzan) eta merkataritzan. Nekazaritza lehen aroan sektorerik garrantzitsuena izanik, egun ere, sektorerik aipatuena da, baina orain ez da lotzen baserriaren munduarekin, ustiapen industrialak sortu dituen negutegiei, lur-moten sail-

kapenari eta uzta zein merkataritzari lotua agertzen da. Garraioak ere agerpen gutxiago du.

3. taula: sektoreak

SEKTOREAK	1. aroa	2. aroa	3. aroa
Nekazaritza	26,78	11,76	9,49
Merkataritza		3,93	8,37
Komunikabideak		5,65	7,82
Janarigintza	7,14	2,21	6,98
Hezkuntza	1,78	4,91	6,14
Garraio gintza	21,42	13,75	5,58
Zurgintza	3,57	0,73	5,02
Ikuskizungintza	1,78	1,47	5,02
Kulturgintza		0,98	4,18
Osasungintza	1,78	8,84	4,18
Aisialdia	1,78	2,45	3,63

Lehen aroan hegazkinak, errepideak edo telefonoak aipatzen ziren eta egun teknologia zibernetikarekin eta astronautikarekin lotuta dator. Hortaz, eduki berria eta modernoagoa.

### Edukia lekutzeko moduak

Gure lanean testuaren eta ikonoaren arteko koherentzia eta lekutzeko modua definitzen dira. Orriz orri mezu idatzia eta ikonografikoa biak batera irakurrita, testu liburu bakoitzean edukia non kokatzen den mugaturik, ikusi dugu Euskal Herriari buruzko edukiei ematen zaien erreferentzia aldatuz joan dela XX. mendean, eta gaur egun argitaratzen ari diren testu liburuetan ere badirela aipatu beharreko gorabeherak. Euskal Herriko kultura modu honetan definitzen da testu liburuetan, paisaia, euskara edo hizkuntzaren azalpena eta bestelako ezaugarri hauek: jaiak, gastronomia, kirolak, pertsonaiak, mitologia eta musika eta dantzak. Euskara eta euskal kultura lantzeko moduaz gain, aldagai bakoitzari ematen zaion maiztasuna eta testuiguru ere aldatuz doaz.

Lehenengo aroan, baserria, jaiak, kirolak, mitologia eta musika-dantzak

ikuspegi soziokulturaletik landuta agertzen dira, Euskal Herriaren testuiguruaren barnean. Paisaiarik gehienek, berriz, estatua dute erreferentzia, baita pertsonaiek eta ohiturek ere. Bi-

garrenean ere horrela da, baserria da ikuspegi soziokulturaletik lantzen den bakarra. Beste guztiak ikuspegi hegemonikotan kokatzen dira.

Bigarren aro honetan sortuko da aurrerantzean garrantzi handia hartuko duen ikuspegi

juridikoa, zeinaren bidez aldagai askok -paisaiak, hizkuntzak zein gainerakok- Euskal Herriarekiko izan duten erreferentzia galduko duen.

Horrela, egungo paisaiak Euskal Herrian kokatuta lantzen direla pentsatu arren, ikuspegi juridikoa agertzen dute, baita gainerakoek ere. Ikuspegi hegemonikotik lantzen dira ezaugarri guzti-guztiak, dela egoera autonomikoa islatuz, dela estatuaren markarekin, den-denek galdu dute artean izan duten Euskal Herriarekiko lotura.

Euskara da salbuespen bakarra, euskara Euskal Herriarekin lotzen baita. Estatua edo autonomia markadun zutabeek gora egin badute ere, oraindik ez da guztiz galdu ikuspegi soziokulturala.

Datuak uler daitezten, azpimarratu beharrekoa da ezagutza arlo edo ikasgai hau estatuak, hots, botere hegemonikoak, beretzat gorde duen curriculumaren zatirik handienetako bat izan dela beti. Iparraldearen kasuan, osorik bere eskuetan gelditzen den bitartean, Hegoaldean zati garrantzitsu bat beretzat gordetzen du Estatuak. Frantsesak *“L’État continue à définir les objectifs généraux de la politique d’éducation. Il conserve la responsabilité de la défini-*

*tion des orientations pédagogiques, des contenus d’enseignement et des diplômes qui sanctionnent les formations ainsi dispensées. L’État conserve la gestion des personnels (recrutement, formation, rémunération)”* dio. Espainiakoak bere LOGSEko 4. atalak dakarren curriculumaren definizioaren bidez lotzen du hezkuntzaren kontrol osoa: *“1. A los efectos de lo dispuesto en esta ley, se entiende por currículo el conjunto de objetivos, contenidos, métodos pedagógicos y criterios de evaluación de cada uno de los niveles, etapas, ciclos, grados y modalidades del sistema educativo que regulan la práctica docente. 2. El gobierno fijará en relación con los objetivos expresados en términos de capacidades, contenidos y criterios de evaluación del currículo, los aspectos básicos de éste que constituirán las enseñanzas mínimas, con el fin de garantizar una formación común de todos los alumnos y la validez de los títulos correspondientes”*.

Hegoaldearen kasuan, bestalde, argiargaria da Estatuaren esku gelditzen den curriculumaren esparrua eta eduki horien izaera eta proportzioa. Angulo Rasco-k dio, LOGSEren bitartez Estatuak eskuratu dituen konpetentziak gehiegizkoak direla, hala kantitatez nola kalitatez. Oinarrizko gutxienezko irakaspenetatik Estatuak beretzat eskusiboki gorde du proportziorik altuena *“conocimiento del medio natural, social y cultural”* edo *Ingurunea* deritzon arloan. Horrez gainera, beretzat gorde du eduki kontzeptualen, jarrerazko eta prozedurazko edukien eta ebaluazio irizpideen esparruetako zatirik handiena.

Hego Euskal Herriaren kasuan, LOGSE legea indarrean jarri denetik hona, argialetxeen testu liburuen ekoizpen berrietan Euskal Herriari loturiko agerpena gero eta murriztagoa da, *Ingurune* arloari dagokionez, behintzat. Egun, LOGSE legea indarrean badago, ez dago motiborik beherkada kualitatibo hori gerta dadin, ezen curriculumaren edukia ez baita aldatu. Horregatik, beldur gara, azken erronaldiko testu liburu horiek ez ote diren LO-



CE legeari begira jarriak. Oraindik ez dakigu LOCE legetik eratorritako curriculum nola gauzatu den gure herrian, bainagure ikuspuntutik begiratu, honako hiru atal hauetan datozen berrikuntzek etorkizunean eragina izan dezakete gure artean:

Bat: I. Atalburuko I. kapituluko 8. atalak "Curriculo" duizena. Lehen aipatutako LOGSEko 4. artikulatik edaten du, 2. puntuari izan ezik. Aldaketa nabarmena dago: orain arte izendaturiko "oinarrizko gutxienezko irakaspenak" hemendik aurrera "irakaspen komunak" deituko dira. Hauek, bestalde, hezkuntza transferiturik dagoen autonomietan ordutegiaren % 55eko arreta izango dute, nahitaez, -LOGSEren kasuan ez bezala, % 55, gehienez-.


Bi: Lehen Hezkuntzako *Ingurune* arloaren izendapen berria. Hemendik aurrera "Ciencias, Geografía e Historia" izendatuko da. Zein ote, baina, edukia?

Hiru: Batetik, testu liburuak jainkotu egiten da ikas material gisa. Bestetik, -lehen goz Hego Euskal Herriko derrigorezko irakaskuntzan gertatzen da- testu liburuak ez du beharko Hezkuntza Administrazioaren onespena, ez editatzeko ezta irakaskuntzan erabiltzeko, legearen "De los libros de texto y demás materiales curriculares" izeneko 3. Erabaki Gehigarriak dakarrenez.

Hari honi jarraituz, ikerketa honetan Euskal Herriari buruzko edukia erreferentzia soziokulturala aztertuta, ikusi duguna da testuinguru soziokulturalan lantzen diren edukia galduz joan direla XX. mendean, eta horrela jarraitzen dutela XXI. mendean hasieran ere.

Gure lanean nabarmen agertzen da ikuspegi soziokulturalaren beherakada (ikus 4. grafikoa). Lehenengo aroan ehuneko handian lantzen dena, bigarren aroan nabarmen jaisten dela ikus daiteke grafikoa. Han, mendean hasierako testu liburuetan Euskal Herria da edukia lekutzeko oinarria, erreferentzia nagusia. Gero, aldatuz doa oinarri hori, eta mendean azken hamarkadan beherakada handia agertzen du erreferentzia soziokulturalak. Erein eta

4. grafikoa: erreferentzia soziokulturalaren garapena



Elkar kenduta, besteak ez dira heldu ere egiten %20ra.

Mendean aldaketarekin argitate txiki batzuk testu liburu berriak ekoiztu dituzte, eta beste batzuk osatzeko bidean dabilta. Horiatariko batzuetan Euskal Herriari ematen zaion trataera nola den begiratu, ikusi dugu azken hiru urteko testu liburu berrietan, Euskal Herria errealitate soziokultural moduan hartuta ez dela %1era ere heltzen. Hori, agertzen den kasuetan.

XXI. mendean ez digu etorkizuna bermatzen, gaurko testu liburuetako edukia Euskal Herriarekin gero eta lotura txikiagoa agertzen baitute. Euskal Herria ez da testu liburuetako edukia erreferentzia, egungo edukietan ez baita testuinguru soziokulturala aintzakotzat hartzen.

LOCE delako lege horrek ekarri dituen berrikuntzak -ostean gehiago ekarriko ditu eta- gauzatu ikusten ditugu testu liburu berrietan, hain zuzen ere, 2000tik honako urteetan EA Erako eta Nafarroarako argitaratu direnetan. Azken baten, argi azaltzen da testu liburuarri garrantzi handiagoa ematen zaio la, papereko euskarriaren erabilera indartu egiten dela. Gainera, joera ezaguna da euskara eta bestelako ezaugarriak lekutzerakoan estatuaren antolaketa juridikoan oinarritzea. Horren

guztiaren ondorioz, Euskal Herria ente soziokulturala izan baden arren, sailhestu egiten da. •

### Bibliografia

- ANGULO RASCO, J. F.: "El gato por liebre o la descentralización en el sistema educativo español", in Cuadernos de Pedagogía, 222 (1994), 74-83, Barcelona.
- BILBAO BILBAO, B.: *Kultura erreferenteak oinarriko curriculumean Euskal Herriko eskoletan*, EHU, Bilbo, 2002.
- CHOPPIN A.: "Pasado y presente de los manuales escolares" in RUIZ BERRIO, J.: *La cultura escolar de Europa*, Biblioteca Nueva, Madrid, 2000, 107-166.
- EZKURDIA ARTEAGA, G.: *Lurraldea eta Historia Lehen Hezkuntzako testu liburuetan*, doktore tesia, argitaratzeke, 2003.
- JOHNSEN, E.: *Libros de texto en el caleidoscopio*, Pomares-Corredor, Barcelona, 1996.
- PEREZ URRAZA, K.: *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testu liburuetan*, EHU, Bilbo, 2003.
- TORRES, J.: *El curriculum oculto*, Morata, Madrid, 1992.

# Anjeles Iztueta

Eusko Jauriaritzako Hezkuntza,  
Unibertsitate eta Ikerketa sailburua



Hezkuntzatik egin behar  
dugunak izugarrizko garrantzia  
du, datorren urteetako Euskal  
Herria jokatzen ari baikara.  
Klabea da





# Anjeles Iztueta

E

## Kalitate

Legearen aurrean  
malgutasunarekin eta  
ardurarekin jokatu  
behar da eta bideak  
bilatu behar dira.  
Gainera, azken finean,  
hori praktikara  
eramaten dutenak  
irakasleak eta  
ikastetxeak dira, eta  
gogoz kontra ez da  
ezer aurrera eramaten.  
Ikastetxe barruko  
bizitza ikastetxe  
barruko bizitza da. Nik  
uste dut herri honetan  
gauza asko egiteko  
inudimena dagoela.

Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua bere legegintzaldiaren ekuatorera iritsi da, hots, bi urte pasa ditu kargu horretan eta beste hainbeste gelditzen zaizkio.

Geldiune bat egiteko eskatu diogu hasieran jarritako erronkak bete ote diren ikusteko. Batzuk beterik eta beste batzuk betetzeko, horiek errematatzea falta da orain, eta noski, sortu diren erronka berriei ere helduz.

Hurrengo bi ikasturteak askoz ere politikoa izango omen dira. Izan ere, Kalitate Legeari, Unibertsitate Legeari eta Lanbide Heziketako Legeari politikoki aurre egitea egokituko zaio. Horrez gain, gizar-tean isla duten gaiak hezkuntzan ere izango dutela baieztatu du, eta horregatik dio ikasturte politikoa izango dela.

**Legegintzaldiaren hasieran sei erronka aipatu zenituen. Nola daude une honetan egitasmo haiek?**

Sei helburu haietatik batzuk bete ditugula esan liteke. Adibidez, 0-3 etapa bideratuta dago. Dagoena finkatu dugu eta Partzuergoaren bitartez 1.000 plaza berri sortuko dira aurten eta urteror 1.000.

Bigarren erronka langileen egonkortasuna ziurtatzeko edo hobetzeko oposaketak egitea zen. Zortzi urte oposaketak egin gabe egon ondoren, aurten egin dira. 17.500 irakasle eman zuten izena, gutxi gorabehera 5.000 aurkeztu ziren eta 1.500 inguru egin dira funtzionario.

Hirugarren helburu handia Euskal Unibertsitate Sistemarentzako Legea zen. Gobernuak onartu zuen gure proposamena eta orain eztabaida politikoan sartuko da.

Beken sistema guztia ere berrikusi dugu eta aldaketa batzuk egin ditugu. Orain askoz diru gehiago bideratzen da.

Herrien Europa ezagutzeko ere urratsak ematen ari gara.

Lanbide Heziketan eskaintza partziala edo modularra jarri dugu martxan era pilotuan, hots, titulazioa zatika lor daiteke, 40 moduluz osatutako ikasketak baitaude. Horrez gain, Lanbide Heziketa eta unibertsitatea lotu ditugu eta memento honetan unibertsitateko sei ikasketek lotura dute Lanbide Heziketarekin.





## Lanbide Heziketako Legeak zer ekarri du?

Lege horrek ez digu hainbeste kalterik egin. Lanbide Heziketan punta-puntan gaude eta hemengo eskema kopiatu dute.

## Dena dela, euskararen egoerak larria izaten jarraitzen du, ezta?

Gai horretan zulo handia daukagu. Gaur egun espezialitate pila bat eskaintzen dira eta denak ezin dira eredu guztietan eskaini. Teorian A eta D ereduak daude aukeran, baina praktikan Angelditzen dira. Horregatik, udaberrian dekretu bat egingo dugu eta eredu eleanitza planteatuko dugu. 16 urterekin ikasle guztiak euskaraz dakitela suposatuta, ikasgai batzuk euskaraz jasoko dituzte, beste batzuk gaztelaniaz eta beste bat ingelesez.

Materialgintzan ere badago egitekorik, hainbeste espezialitate egonik ezinezkoa baita guztietarako liburuak argitaratzea. Hori dela eta, Internetez baliatuko gara.

## Kalitate Legetik komeni ez dena ez duzuela hartuko esana duzu.

Hala da. Zenbait planteamendu atzerakoiak dira eta ez dugu atzerapausorik emateko asmorik. Zentzu horretan, gure bidean eta betebeharraren arabera jarraituko dugu, lehen egiten dugunarekin.

Esate baterako, Legeak 3-6 etapa planteatzen du eta kontzertatzeko proposamena egiten du. Guk hori aspalditik egina daukagu, eta ez hori soilik, ia haur denak 2 urterekin eskolatzen dira.

Bigarren gauza bat ingelesa Lehen Hezkuntzan sartzeko egiten duen planteamendua da. Gu askoz aurrerago goaz, ikastetxe guzti-guztietan 4 urtetik aurrera ingelesa irakasten baita, eta toki batzuetan lehenago. Horrez gain, proiektu eleanitzak dauzkagu bai sare publikoan, bai ikastoletan eta bai ikastetxe erlijiosoetan. Beraz, aurretik goaz.

Beste puntu bat notarena da eta hor hitza irakasleek izango dute. Horren inguruko hausnarketa bat bideratuko dugu, baina azken finean, irakas-

le  
ba-  
koitzak  
erabakiko  
du eskala kualita-  
tibotik kuantitatibora pa-  
sa edo ez.

Hizkuntzaren kasuan ere aurrerago goaz; ez dugu hizkuntza bat edo bestea planteatzen, eleaniztasuna baizik, hots, euskara, gaztelania eta ingelesa. Gure hezkuntza sisteman lehen urteetan %44 dagokie hizkuntzei eta Lehen Hezkuntzaren bukaeran %33. Guk horrela jarraituko dugu. Horixe da memento honetan European planteatzen dena: ama hizkuntza eta beste bi.

Gainontzeko gauzei dagokionez, hausnarketa foro batzuk jarriko ditugu martxan. Kasu horietan, gure sistemari komeni zaiona hartuko dugu eta komeni ez zaiona ez. Horretarako, maila bakoitzeko irakasleen iritzia jasoko dugu eta funtzionatzen duten gaiak edo ondo doazenak ez ditugu aldatuko. Alde batetik, finantziarioa geurea delako eta bestetik eskola inklusibo baten aldeko hautua egin dugulako.

## Praktikan, ordea, mandatu batzuk badatoz; adibidez, zuzendaritzaren hautaketa nola egin edo erlijioa derrigorrezko ikasgai bezala jartzea. Zer egingo da horrelako kasuetan?

Barruan hartuko ditugu erabakiak. Ez dugu egingo gure eskemak behar ez duen ezer eta lau printzipioekin jokatuko dugu: malgutasuna, ardura, aldaketa gure sistema hobetzeko baldin bada hartuko dugu eta bestela ez, eta kontuan izan behar dugu eskumenak geureak direla, guk antolatzen dugu gure hezkuntza gure beharren arabera. Hila-



bete  
batzuk es-

kainiko dizkiogu horri buruz pentsatzeari eta bitartean ez da aldaketarik egongo.

## Edonola ere, nahiz eta eskumenak hemengoak izan, lege organiko bat beti gainetik dago.

Beti malgutasunarekin eta ardurarekin jokatu behar da eta bideak bilatu behar dira. Gainera, azken finean, hau praktikara eramaten dutenak irakasleak eta ikastetxeak dira, eta gogoz kontra ez da ezer aurrera eramaten. Ikastetxe barruko bizitza ikastetxe barruko bizitza da. Nik uste dut herri honetan gauza asko egiteko irudimena dagoela.

## Hizkuntza ereduaren kasuan legeko proposamen bat aurkeztekoak zaretu Legebiltzarrean. Zer proposatzen duzue?

Hiru neurri mota proposatuko ditugu dauden ereduak indartzeko. Lehen-dabizi, A ereduaren Euskara ikasgai edukitzeaz gain, beste ikasgai bat ere euskaraz irakastea. Bigarrenik, edozein mailatan euskararen ebaluazioa mailakatzea, hots, ez egotea dena bukatu eta EGA egin zain. Hartara, programazioa ere mailakatua izango da eta akreditazio partzialak emango dira, banaka-banaka. Eta hirugarrenik, irakasleak prestatzen joateko prestakuntza ibilbideak egitea bai euskara teknikoan eta bai alorretako prestakuntzan.

Hemengo familiek B eta D ereduaren aldeko hautua egin dute. Aurtengo ma-



Autonomia eta  
bitartekoak edukitzea  
askoz hobea da  
ikastetxearentzat,  
bertan lan egiten duten  
irakasleentzat,  
ikasleentzat,  
gurasoentzat eta  
eskualdearentzat edo  
herriarentzat

Herri batek ez  
badu hezkuntzan  
inbertitzen, ez du bere  
etorkizunean  
sinesten

trikulazioan 3 urteko haurren %92k B eta D ereduak aukeratu du. Horrek esan nahi du hemendik 13 urtera gazteen %92, alegia, hamarretik bederatzia, B eta Dn ikasia izango dela.

### **Baina, B ereduak euskalduntzen al du, bada?**

Batzuk bai, eta beste batzuk Atik gertuago daude, heterogeneotasun handia dago. Argi dago D ereduak dela hoberena eta memento honetan %62 suposatzen du. Gizartea D eredurantz doa, euskara aukeratu du seme-alabentzat eta horrek du garrantzia. Gure ardura da hezkuntza sistemak eskaintzen duen euskara hori txukuna izatea.

### **Ez al da planteatzen ereduaren sistema hobetzeko partez euskalduntzen duten murgiltzen sistemak ezartzea?**

Ez diot errealismorik ikusten horri. Memento honetan hori eztabaidatzen hasiko bagina, A, B, C, D, H, J... eta ez dakit zenbat eredurekin hasiko ginateke, ez atzera eta ez aurrera. Eta adibideak oso gertu dauzkagu, aldamenean. Guretzat izango litzateke kaltegarri.

Gizarteak A, B eta D aukeratu ditu eta guk eredu horietako euskara txukuna izan dadin bermatu behar dugu, hori indartu eta hobetu behar dugu. Kuan-

titatiboki asko egin dugu, baina asko gelditzen zaigu.

### **Irakasleen hizkuntza gaitasuna bermatzeko neurriak hartzen al dira?**

Orain sartzen diren irakasle berrien kasuan bai. Gizarteak B eta D ereduak eskatzen dituenez, hori behar da hezkuntza sisteman. Irakasle izateko PL1 edo PL2 behar da gizarteak hala eskatzen duelako. Badaude perfil hori ez duten irakasle egongor batzuk eta horien baldintzak sindikatuekin negoziatu behar izaten dira. Haatik, funtzionario izateko euskara behar da, hezkuntza sistema elebiduna denez irakasleek ere hala izan behar baitute. Horregatik, uztailen egin diren oposaketetan PL1 eta PL2 edukitzea eskatu zaie, ez PL0. Horregatik atzeratu ziren oposaketak, mugan zegoenari liberazioa hartu eta ikasteko denbora emateko.

### **Dena dela, PL1 lortzen dutenak ez dute erraztasun nahikorik euskaraz egiteko, beraz eskolak emateko ere ez. PL1 eta PL2 ezin dira parekatu.**

Arrazoi duzu, gutxienez PL2 behar da. Irakasle euskalduna izateko euskaraz eman behar dira eskolak eta hizkuntza ondo menperatu behar da. Beste edozein lanbidetan baino garrantzi gehiago du, hizkuntza lan tresna baita.





Irakasleek euskara ez baldin badute menperatzen, irakaskuntzaren kalitatea galdu egiten da. Hizkuntza ez bada ongi menperatzen, irakasgaia ezin da ongi azaldu.

Orain perfilak ezartzen eta berrikusten direnean PL2ra jotzen da.

### **Etorkinen kasuan ere hizkuntzak garrantzi handia du. Zer planteamendu daukazue horren inguruan?**

Berezibiziko garrantzia duen gaia da. Memento honetan 6.000 etorkin daude EAE eta ez dira asko, orotara 300.000 haur daudela kontuan harturik. Baina urtez urte 1.000 gehiago etorzen dira herrialde askotatik. Bestalde, gure herrian elebitasuna finkatzen ari da eta eleaniztasunerantz goaz.

Herri integratu baten alde egin behar baldin badugu, arduraz heldu behar diogu. Hori dela eta, guk zera planteatzen dugu: B eta D ereduak bultzatzea eta etorkinak eskola guztietan zabaltzea gettoak sor ez daitezen. Garrantzitsuena da hemengo haurrak bezala sentitzea eta integratuta egotea.

### **Horrek planifikazio zabalagoa eskatzen du eta ildo horretan ikastetxei autonomia gehiago ematearen aldekoa al zara?**

Sareen eta ikastetxeen arteko desorekak ezabatzeko beharrezkoa da ikastetxe publikoek autonomia izatea, ez baitaukate. Benetan, era nahiko zentralizatuan antolatzen da eta hori ez da bidea sareen arteko oreka eta kalitatea lortzeko. Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza proiektua egiteko askatasuna eta ardura edukitzea da bidea. Hori dela eta, udaberrirako proiektu pilotu batzuk jarriko ditugu abian.

### **Nola ulertzen duzu ikastetxeen autonomia?**

Oraingo eskeman dena modu zentralizatuan egiten da. Negoziazioak ere modu zentralizatuan egiten dira sindikatuekin. Hori da gaur egun funtzionatzeko dagoen eskema. Ikastetxeen autonomia, ordea, beste eskema batean ulertzen dut: ikastetxeek autonomia



edukitzea hezkuntza proiektua egiteko, bere langileak kudeatzeko, dirua kudeatzeko.... Horrela, ikastetxe batzuk hizkuntzetan espezializatu daitezke, beste batzuk teknologia berrietan, beste batzuk aniztasuneko proiektuetan... autonomia daukate horretarako. Nik uste dut horrek sistemari kalitatea ematen diola.

Noski, eskola guztiak ez dira berdinak, Lanbide Heziketako edo Lehen Hezkuntzako zentroak ez dira berdinak. Baina autonomia eta bitartekoak edukitzea askoz hobea da ikastetxearentzat, bertan lan egiten duten irakasleentzat, ikasleentzat, gurasoentzat eta eskualdearentzat edo herriarentzat. Hori oso argi dago. Beste arlo batzuetan egiten da, osasungintzan, esate baterako. Eta Europako hainbat herrialde ere norabide horretan doaz.

### **Autonomiarekin batera bitartekoak ematea aipatu duzu eta hori administrazioaren esku dago.**

Bai, eta nik argi daukat ikastetxeei autonomia emateko baliabideak eman behar zaizkiela. Dirua behar da proiektuetarako, askatasuna pertsonalagoaren kudeaketarako...

Diruarekin batera, eraginkortasuna, ardura eta kudeaketa ona behar dira. Eta kudeaketa ona beti da hobea dezentralizatua, ez zentralizatua.

### **Dezentralizazioaren aldekoa zara, orduan?**

Bai, botere zentralizatua edukitzea ikuspegi zaharra da. Boterea dezentralizatu egin behar da, dirua banatu egin behar da, eta gero, eraginkorra izan, helburuak jarri eta neurtu. Politikako beste arloetan bezala, printzipioak berdinak dira: ikastetxean erabaki daitekeena ikastetxean erabaki, eta ez goi mailan. Ikastetxeak eduki behar du behar duen dirua eta ardura, han baitaude ikasleak, irakasleak, gurasoak eta herria. Hori ezin da zentralizatuta gelditu.

Dena dela, eskema batetik bestera pasatzeak konfiantza eta ardura eskatzen ditu, baina hortik jo behar dugu.

### **Baina autonomiarekin ez al dago arriskurik administrazioak bere erantzukizunari muzin egiteko, gastu publikoa murrizteko eta denek hezkuntzarako duten eskubidea bermatu gabe gelditzeko?**

Noski, autonomia emateak eta ikastetxe bakoitzari bere kudeaketaren ardura emateak ez du esan nahi gura due-na egin dezakeenik. Eskola bakoitzaren abiapuntua desberdina denez, behar dituzten bitartekoak ere hala izango dira. Ikastetxe batzuetan beti diru gehiago beharko dute arazo gehiago dituztelako. Haur bat 100 kostako da eta beste bat 300, baina hala da. Beha-

Herri integratu baten alde egin behar baldin badugu, arduraz heldu behar diogu. Hori dela eta, guk zera planteatzen dugu: B eta D ereduak bultzatzea eta etorkinak eskola guztietan zabaltzea gettoak sor ez daitezen.

Garrantzitsuena da hemengo haurrak bezala sentitzea eta integratuta egotea.



irren araberabatu behar da, gehiago behar dutenei gehiago eman ez eta gutxiago behar dutenei gutxiago. Eta hori guk egin behar dugu, horren ardura geurea da. Herrialde bakoitzak BP-Gren ehuneko jakin bat gastatu behar du hezkuntzan eta garestia da. Baina herri batek ez badu hezkuntzan inbertitzen, ez du bere etorkizunean sinesten.

Berdintasuna zentzu horretan ulertzen dugu. Abiapuntu desberdina dute, baina denek puntu berera iritsi behar dute eta horretan lagundu behar zaie.

**Hori ikastetxe guztientzako ikuspegi publikoa izatea da.**

Noski, dena baita diru publikoa. Gure sistemak %100 kontzertatua dago, edozein saretan gaudelarik ere, diru publikoaz ari baikara. Beste kontu bat da sareen eta ikastetxeen artean desberdintasunak daudela eta ikusi egin

behar dela patrimonioa norena den eta beste gauza asko. Adibidez, irakasleek berdin kobratzea eskubide bat da, berdin da batekoa edo beste-koa izan. Azken finean berdintasun lortzea bi zentzutan ulertzen dugu: irakasleek berdin kobratu behar dutela hemen edo han lan egin; eta behar gehiago duten haurrei gehiago eman behar zaie.

**Orokorrean parte hartzea ahulduta dago eta gurasoena ere bai. Horrek kezkatzen al zaitu?**

Bai, noski. Gurasoek ez dute behar adina parte hartzen eskolako bitzitan eta hori hobetzeko mekanismoak jarri behar ditugu. Eta ez da erraza. Badaude guraso elkarteak, baina ez da nahikoa. Egia da eskolan egiten dena asko dela, baina etxean eta gizartean egiten dena ere bai. Beraz, zerbait egin behar dugu. Neurri batzuk oso sinpleak izan daitezke: berrikusi ea gurasoekin egoteko orduak ondo jartzen ditugun edo ez, elkar topatzeko uneak bilatu... Komunitate zientifikotik ere beti azpimarratzen den gaia da, baina ez daukagu nahiko harremanik.

**Gurasoek ez ezik, ikasleek ere ez dute parte hartzen. Hezkuntza proiektu guztietan dago jarrita ikasleek kritikoak izan behar dutela, baina ez al da paperean gelditzen helburu hori?**

Bai, agian. Bi printzipio dira garrantzitsuak.



tzitsuak: gure gazteak kritikoak eta solidarioak izatea eta erabakitzeke ahalmena izatea. Hain da garrantzitsua herrigintzan eta pertsona bezala parte hartzen duten eta erabakitzen duten gazteak izatea. Bestela, herri bat ez da bere buruaren jabe.

Hori esan egiten dugu, baina mekanismoak bilatu behar ditugu gazteak kritikoak eta parte-hartzaileak izan daitezten. Gero A, B edo C izango dira, baina gutxienez beraiek izango dira.

Aipatzen ditugun printzipioak osatu egin behar dira. Pertsonekin erabiltzen ditugun printzipioek herrigintzarako ere balio dute. Pertsonak erabakitzeke gai izan behar dute, eta herriak ere bai. Pertsonak solidarioak izan behar dute eta herriak ere bai. Hezkuntzatik egin behar dugunak izugarritzko garrantzia du, datorren urteetako Euskal Herria jokatzen ari baikara. Klabea da.

### **Eskola ituna legegintzaldi honetan egingo al da?**

Eskola ituna egin aurretik prestatu egin behar dugu. Orain daukagun giroak eta giro politikoak ez du errazten hori. Beraz, egin dezagun lana sistema integratu baten alde, goazen sistema bakarrean pentsatzera eta lan egitera, sare desberdinak egon arren denok sistema

bakarra osatzen baitugu eta helburu berdinak baitauzkagu. Eleaniztasuna denontzat da xede, ikasle ezinduek eskola denetan egon behar dute, etorkinek ere bai, teknologia berriek ere bai... Denok batera pentsatzen hasten garenean egingo dugu ituna. Lehendabizi goazen batera pentsatzera eta gauzak berdintzera, desoreka handia baitago.

Eskola publikoari gauza asko falta zaizkio. Adibidez, eraikinak zaharkituta daude eta berritu egin behar dira. Hori dela eta, udalekin eta EUDELekin batera 10-15 urteko plan estrategiko bat egin nahi dugu eskolak berritzeaz gain, espazio horiek herri osoarentzat izan daitezten. Izan ere, zentroak arratsaldeko 6:00etatik aurrera eta asteburuetan itxita egoten dira eta herrian edo auzoan espaziorik, kiroldegirik edo aretorik gabe gelditzen dira.

Ikastolek ere azpiegituretan zor handiak dituzte. Tonbola, Kilometroak, Ibilaldia eta horrelakoak antolatuz egin dituzte eraikinak eta gabezia eta zor handiak dituzte.

Ikastetxe erlijiosoetan patrimonioa eta eraikinak badituzte normalean, baina beste gabezia batzuk dituzte.

Beraz, funtsean zer dagoen ikusi eta batzen joan behar da.



**Eskola ituna egin aurretik prestatu egin behar dugu. Orain daukagun giroak ez du errazten hori. Beraz, egin dezagun lana sistema integratu baten alde, goazen sistema bakarrean pentsatzera eta lan egitera, sare desberdinak egon arren denok sistema bakarra osatzen baitugu eta helburu berdinak baitauzkagu.**



## Nola irakasten dute DBHko irakasleek?

### Irakasteko modu berri bat baliabide teknologikoak erabiliz



Arkaitz LAREKI

Irakaslea eta psikopedagogo

Ondoko lerroetan saiatuko gara ulertzen zergatik dagoen hain hedatuta DBHn irakas-sistema tradizionalerako jera. Horren aurrean, berritzaileagoa den beste metodologia baten oinarriak aurkeztuko ditugu, eta hau abiapuntu bezala hartuz, Gizarte Zientziak Teknologia Berriekin lantzeko proposamen zehatza egingo dugu.

#### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren egoera

Gizarte Zientzien irakaskuntza, DBHko beste ikasgai asko bezala, besteak beste, ondoko baldintza hauen arabera garatu ohi da:

Irakasleriaren prestakuntza ezagutza teknikoetan oinarrituta dago. Kontuan hartzen badugu gaur egun Biga-

ren Hezkuntzan aritzen diren irakasle gehienek 40 urte baino gehiago daukatela, eta jakinda maila horretan aritzeko derrigorrezkoak diren ikasketa pedagogikoak azken urteotan ezarri direla, esan dezakegu DBHn irakasten duten irakasle gehienen prestakuntza alderdi teknikoan soilik oinarrituta dagoela. Hau da, Historian, Geografian, Filologian... lizentziatuek; Fisikan, Kimikan, Matematikan... lizentziatuek, ingeniariak... oso ondo menperatzen dituzte ikasgai horiek, baina askotan pedagogiaz dauzkaten ezagutzak ez dituzte eskuratu prestakuntza berezi, zehatz eta egokitu baten bidez, baizik eta nahiko autodidakta izan den apendizaiaren baten bidez. Egoera honek eraman ditu hainbat irakasle eurek ikasi zuten metodo berbeekin irakastera.

DBHko irakaskuntzak markatzen duen beste baldintza bat da unibertsitatera joan nahi duten ikasleek Batxilergoa bukatu ondoren kanpoko ebalua-

zio bat pasa behar dutela. Hots, Iparraldean baxoa eta Hegoaldean orain arte "selektibitatea" deitutakoa edota hementik gutxira ezarriko duten "errebalida" azterketa. Hori dela eta, erabiltzen den metodologia, ebaluazioa, baliabideak... eta abar proba hori gainditzera bideratzen dira eta berrikuntza metodologiko berriak ezartzeko paradarik ez da egoten.

Bestalde, curriculumari begiratzen baldin badiogu, gaur egun dagoen ikasgaien banaketa (matematika, natur zientziak, erlijioa...) orain dela bi mende sortua dela egiazta dezakegu eta ia aldaketarik gabe dirauela (Area, 2001). Horrela, industrializazioan murgilduta zegoen gizarte baten beharrei aurre egiteko sortu zen ikasgaien banaketak berdintsu jarraitzen du, eta ez ikerkuntza arlo berrien sorrerak ezta informazio gizartean murgiltzeak ez dute lortu curriculumaren berrantolaketa sakoana. Hori gutxi balitz, irakasgaien artean



hierarkia inplizitu bat existitzen da oraindik, eta ez da modu berean baloratzen matematikan edo lehen hizkuntzan zailtasunak izatea eta beste edozein gaitan izatea (antza denez Kalitatezko Lege berriak hori suspertzen du).

### Irakasteko joerak DBHn

Egoera honen aurrean ez da harritzekoa Bigarren Hezkuntzako irakasteko erak edo moduak ere aldaketarik gabe jarraitzea, eta oso ezaguna egin den ondoko konparaketa gela askotan gertatzen denaren adierazgarri izatea: Erdi Aroko mediku batek gorriak pasako lituzke ebakuntza gela batean sartu eta han gertatzen dena ulertzeko, baina aro bereko irakasle batek ez luke arazo handirik edukiko gaur egungo ikasgela batean sartu eta hor dagoen irakaslea ordezkatzeko (Papert 1993 Guzmanen 2001). Hala ere, eta gehiegi sinplifikatzeko arriskua baldin badago ere, bi joera nabarmentzen dira gaur egungo irakaskuntzan:

Alde batetik, aprendizaiaren ideia, kontzeptu edota jokaera baten errepikapena dela uste dutenak daude. Oroimenezko aprendizaiaren oinarritzen dute beren irakaskuntza eta hura gerta dadin errefortzuak edo zigorrak (psikologiako ikuspuntutik ulertuta) erabiltzen dituzte, ikasprozesuan gertatzen dena ulertzen saiatu ere egin gabe. Teoria horiekin bat datozen irakasleek oso tradizionala izan den **metodologia** hartzen dute gela barruan: **irakasleak** beren oholza edo eserlekuan esertzen dira eta testu liburua irakurtzen duten bitartean azalpenak ematen dituzte. Askotan apunteak diktatu ere egiten dituzte. Erabiltzen dituzten **tresnak** liburua, arbela edota fotokopiak izaten dira, eta horien edo beste edozein baliabideren baten erabilera (proiektagailua, bideoa...) diskurtsoan laguntzeko besterik ez da izaten. **Ikasleek** zeregina murriztu da: entzun, apunteak hartu eta memorizatu. Batzuetan ariketa praktikoak egin behar izaten dituzte, baina ariketa horiek oroimenaren bitartez ikastera zuzenduta daude. Gainera, gaizki eginez gero, berriz egin beharko dituzte ondo



egin arte, batzuetan ulertu gabe zergatik ari diren gaizki egiten. Ikasgaiak azaldu ondoren **ebaluazioa** dator. Horrekin neurtzen da ea ikasleak helburuetara iritsi diren edo ez. Gabeziak ohartuz gero, irtenbidea kurtsoa edo ikasgaia errepikatzea izaten da, eta kasu hoberenean eskolatik kanpoko errefortzurako klaseak gomendatzen dira gela barruan egin daitezkeen aldaketak kontuan hartu gabe. Honengatik guztiagatik, **curriculum** eduki zerrenda itxiztat jotzen da, non alde aurretik finkatutako edukiak aldaezinak diren eta hauetara iristea behar-beharrezkoa den eskola porrotik ez pairatzeko.

Beste aldetik, aprendizaiaren ikaslearen egitura kognitiboaren aldaketatzat

**Behin baino gehiagotan esan izan da Erdi Aroko mediku batek gorriak pasako lituzkeela ebakuntza gela batean sartu eta han gertatzen dena ulertzeko, baina aro bereko irakasle batek ez lukeela arazo handirik edukiko gaur egungo ikasgela batean sartu eta hor dagoen irakaslea ordezkatzeko.**

hartzen dutenak daude (Ausubel, Carretero, Piaget, Vigotski...). Hauen ustez, ikaskuntza ez da datuak errepikatzea, baizik eta pertsona bakoitzak erakiki behar duen prozesua. Eraikuntza hau ikaskuntza esanguratsuan oinarritzen da, non subjektu bakoitzak dituen aurrezagutzei erantzen zaizkien ezagutza berriak bere egitura kognitiboan aldatuz. Ikuspuntu honetatik lan egiten duten irakasleek metodologiak honako ezaugarri hauek ditu: **irakasleak** komunikatzaile bakarraren papera alboratuko du ikaslearen arteko aprendizaiaren (ikasuntza kolaboratiboa) suspertuz. Beraz, bere funtzio nagusiak ikaskuntza dinamizatzea eta ikasleak laguntzea izango dira. Ikasleek aurreideiak ezaugarritzeko zenbait jardura prestatuko dituzte eta ondoren ahalik eta ikasteko egoera errealean sortuko dituzte kontzeptu, trebetasun edota jarrera berrien barnerapena errazteko. **Ikasleak**, lehen ez bezala, era aktiboan parte hartu beharko du bere ikaskuntza aurrezagutzak eraldatuz ezagupen berriak barneratzeko. Horren arabera, bere zereginak bi motatakoak dira: alde batetik informazioa bilatu, baloratu, aukeratu, egitaratu eta barneratu; eta bestetik: informazio berria sortu. Erabiltzen diren **baliabideak**, testu liburua eta arbelaz gain, ordenagailuak, bideoak, Internet, entziklopediak, liburutegia... eta abar izan daitezke. Gainera, horien erabilera ez dago irakaslearen menpe. Aitzitik, ikasleek beharren arabera erabil ditzakete. **Ebaluazioa** egiterakoan, garrantzi gehiago ematen zaio prozesuari emaitzari baino, eta horren ondorioz ebaluazio sistema kurtsoan zehar egindako lanetan oinarritzen da. Ikasproze-





sua ebaluatzerakoan, bere alderdi formatiboa indartzen da eta ikasleek momenturik egokienean jasotzen dute eman dakiekeen laguntza. Hori guztia ikusi ondoren, garbi dago ikuspegi honetatik **curriculum** irekita egongo dela ezarritako ezagutzak lantzeaz gain aniztasunaren trataera egokia egiteko.

Irakaskuntzan bi ikuspegi aratz aurkitzea zaila da, baina nire ustez aipaturiko bi joerak nabarmenak dira DBHko irakasleen artean, batzuetan eurak kontzienteki harturikoak ez badira ere.

Azkenik, esan beharra dago hasieran ikusitako baldintzak kontuan hartuz, ulertzen dudala irakasteko metodoren erabiliena aipatutako bien artean lehenengoa izatea, baina nire iritziz, derrigorrezko edozein hezkuntzatan ekarpen positiboan ikas-jarduerak bigarren ikuspuntutik antolatzen direnean lortzen dira. Haur eta Lehen Hezkuntzako zenbait eskola 90eko hamarkadan hasi ziren konstruktibismoan oinarritutako metodoen bitartez irakasten (Txokoen Sistema, adibidez), eta orain DBHko irakaskuntzari esperientzia hauetatik ideia berriak hartzeko garaia iritsi zaio.

### Gizarte Zientziak Teknologia Berriekin lantzeko proposamen zehatza

Antigua Luberri Institutuan DBHko 2. D eta E geletan Gizarte Zientzietako ikasgaia lantzeko, ikusitako bigarren ikuspuntutik oso gertu jartzen gaituzten zenbait ekintza prestatu genituen orain bi ikasturte. Ondoko lerrootan deskribatuko dugu horietako bat, zeinetan gaur

egungo teknologiek eskaintzen dizkiguten abantailak ondo zehazten diren.

**Helburua:** Gizarte Zientzietako zenbait gai ikuspuntu berri batetik lantzea (hemen aipatutako bigarrena, hain zuzen ere) informazioaren gizarteak eskaintzen dizkigun aukera guztiak erabiliz.

**Jardueraren oinarria:** norberaren interesen arabera, lehenengo hiru hilabeteetan landutako zenbait gaitan sakontzea eta horren inguruan lan bat egitea, informazioa lortzeko baliabide askotarikoak erabiliz. Ondoren, lanak beste en aurrean aurkeztea eta ikasgaiaren web orrian argitaratzea.

## Haur eta Lehen Hezkuntzako zenbait eskola 90eko hamarkadan hasi ziren konstruktibismoan oinarritutako metodoen bitartez irakasten (Txokoen Sistema, adibidez), eta orain DBHko irakaskuntzari esperientzia hauetatik ideia berriak hartzeko garaia iritsi zaio.

Jarduerarekin hasi baino lehen, lehenengo hiru hilabeteetan zehar irakasleak web orri bat prestatu zuen ikasleak orriari ibiltzen ohitzeko eta motibatzeko. Ikasgaiarekin eta ikasleekin erlazioan ututako zenbait informazio jarri zuen: ikasleen posta elektronikoa, ikasgaiaren egitura, oharrak, klaseko argazkia... eta abar. Epe horretan ikasleek webguneari buruzko ideiak emateko aukera eduki zuten.

Bigarren hiru hilabeteetan, jarduera martxan jarri zen. Elkarlaneko ikaskuntza indartzeko, ikasleak taldeka jarri ziren eta talde bakoitzak erabaki behar izan zuen zeri buruz egin nahi zuen lana. Hori erabakita, astean behin egun bat hartu genuen jarduera honetarako. Lanak egin ahal izateko, ikasleek institutuko ordenagailu gelan eta liburutegian informazioa bilatu, baloratu, aukeratu eta egituratu behar zuten. Informazioa aukeratu ondoren horren inguruan lan bat egin behar zuten bi baldintza hauek kontuan hartuz: erabilitako dokumentuak ezin ziren kopiatu (plagioa) eta informazioa ateratzeko erabiltzen zituzten iturri bibliografikoak aipatu beharra zegoen.

Lanak bukatutakoan, Interneten argitaratu ziren gelako beste ikasleek irakur zituzten eta iritzia eman zezaten. Horrez gain, gelan aurkeztu behar izan zituzten lan bakoitzaren alderdi garrantzitsuenak eta lan egiteko jarraitu zuten prozesua.

### Ekintzaren balorazioa

Ekintza hau ebaluatzerakoan ezin ditugu ahaztu prozesu osoan egon diren zailtasunak:

- Baliabide teknologikorik eza. Institutuan ordenagailu gelak badauden arren, zaila da libre topatzea, zeren eta informatikako irakasleez gain, gero eta gehiago baikara Internet eta ordenagailuak irakaskuntzan erabiltzeko baliabide egokiak direla pentsatzen dugunak. Beraz, komenigarria da oraindik martxan dagoen Premia Planak ga-bezia horiek arintzea.

- Arazo teknikoak. Aurrekoaren ondorioz jende ugari erabiltzen ditu or-

denagailuak, nork bere programak instalatzen eta eraldatzen dituelarik beharren arabera. Horrek eta birus informatikoez ondorio txarrak dakartzate ordenagailuen oinarriko softwarean.

- Metodologia honekin eta baliabide anitzekin lan egiteko ohitura falta. Ikasleei esan genienean ez genuela baloratuko haiek pila zezaketen informazioa, baizik eta horrekin sor zezaketen, asko urduri jarri ziren modu honetan lan egiteko ohiturik ez zeudelako. Ziurtasun faltaren ondorioz, batzuei ondo zehaztuta eman behar izan zitzaizkien jarraibideak.

- Interneten dagoen gehiegizko informazioa. Askotan ikasleek informazio asko aurkitzen zuten Interneten, baina informazio hori antolatu gabe zegoen eta beraien mailara egokitu gabe. Hori zela eta, zenbait ikasleek hirugarren eta laugarren saioetatik aurrera nahiago izaten zuten informazioa liburutegian bilatzea eta Internet laguntza moduan erabiltzea.

Baina, arazo horien parean, aipatze-koak dira positiboki baloratu behar diren beste emaitza batzuk, zeinak ildo honetan jarraitzea animatzen gaituzten.

- Jarduera motibagarria izan da. Garbi dago ohikotik ateratzen gaituena motibagarriagoa dela. Irakasteko metodologia eta erabilitako baliabideak berriak izan diren neurrian, ikasleek erakutsi duten jarrera baikorragoa izan da. Gainera, egindako lana besteen aurrean aurkeztu behar zutela eta Internet edonoren eskura egongo zela konturatutakoan gehiago murgildu dira egin beharretan.

- Gizarte Zientzietan lortutako eza-gutzak ez dira errepikapenean oinarritu, ulermenean baizik. Lan berri bat argitaratzea eskatu zaien mementotik (egoera erreala) aurretik zeuzkaten aurrezagutzak martxan jarri behar izan zituzten horren inguruko informazio berria lortzeko. Informazioa barneratzean eza-gutzak eraldatu behar izan zituzten gaiaren inguruan testu berri bat sortu ahal izateko. Prozesu hori jarraituz, ikasleen ikasketak esanguratsuagoak izatea lortu genuen.

- Ikasleek trebetasun berriak ondo barneratzeko lehenengo urratsak eman zituzten. Trebetasun horietako batzuk informazioaren bilaketarekin erlazionatuta daude: bilatu, aztertu, baloratu... eta beste batzuk, berriz, lan bat egiteko eta argitaratzeko jarraitu behar diren pausoez: egitura bati eutsi, ideiak antolatu eta lotu, erabilitako dokumentuak aipatu... eta abar. Ikaskuntza hauek guztiak, Gizarte Zientzietan ez ezik, besteetan ere ondo etorriko zaizkielakoan nago.

- Elkarlanarekiko jarrera baikorra suspertu dugu. Lanak taldeka egitea proposatutakoan irakaskuntzaren alderdi konpetitiboa alboratu eta zailtasunen aurrean laguntza ematea indartu genuen, hain beharrezkoa den pertsonen arteko elkartasuneko ikaskuntza lortuz.

Horregatik guztiatik, martxan jarritako esperientzia nahiko positiboa iruditzen zaigu, aipatutako zailtasunei aurre egin behar izan diegun arren. Hori dela eta, ikasleen lanak eta emaitzak ikustera gonbidatzen zaituztet ondoko webgunean ([www.sc.ehu.es/hatb](http://www.sc.ehu.es/hatb)) eta baitazuen iritzia ematera ere posta elektronikoko honetan ([toplaara@sg.ehu.es](mailto:toplaara@sg.ehu.es)). •

### Gehiago jakiteko:

- ADELL, J.: "Tendencias en educación en la sociedad de las tecnologías de la información", in *Edu-tec*, 7 (1997), <http://www.uib.es/depart/deeweb/revelec7.htm>.

- AREA, M.: (2001) *¿Una escuela del siglo XIX en el siglo XXI? Redefiniendo las metas, formas y políticas de la educación en la era digital. As novas tecnoloxias como eixos de innovación nos centros educativos non universitarios*. ICE de la Universidad de Santiago de Compostela. <http://webpages.ull.es/users/manarea/Documentos/documento9.htm>

- BARTOLOMÉ, A.: "Preparando para un nuevo modo de conocer", in *Edu-tec*, 4 (1996). <http://www.uib.es/depart/deeweb/revelec4.htm>.

- CARRETERO, M.: *Constructivismo y Educación*, Edelvives, Madrid, 1994.

- MARQUÉS, P.: "Sociedad de la información. Nueva cultura. Habilidades clave para los ciudadanos del siglo XXI. Nuevas competencias para el profesorado", in *Quaderns digitals*, 22 (2000). <http://www.quadernsdigitals.net/articuloquaderns.asp?IdArticle=2688>

- PAVÓN, F.: *Educación con nuevas tecnologías de la información y comunicación*, Editorial Kronos, Sevilla, 2001.





## Birakusi aldizkaria eta web gunea

Haurrek geroz eta gutxiago irakurtzen omen dute Game boy eta Nintendo ren garaiotan. Ordenagailuan, berriz, helduek fobia digitala kendu bitartean, etxeko txikiak erreparorik gabe sakatzen dituzte botoiak. Bideojolas eta txatean eskaintza zabala dute haurrek Internet sarean, baina helburu hezitzaileekin eurentzat propio sortutako web orririk apenas dagoen. Hutsune hori betetzeko eta haurrek irakurzaletzeko sortu da Birakusi : uztartuta dauden aldizkaria eta web gunea. Ideia Badator inudimen elkarteko Ainhoa Redondob, Iker Torres eta Nagore Leozena da. Arte Ederrretako eta Diseinuko ikasketak egin dituzte eta haurren mundua gertutik ezagutzen dute, irakasle eta begirale lanetan jardun izan baitute.

**Birakusi** 8-12 urtekoei zuzenduta dauden aldizkaria eta web orria dira. Aldizkaria eta web orria lotuta daude. Web orrian barrena ibiltzeko "pasahitzak" eskatzen dira, alegia, aldizkarian datorrenari buruzko galderak erantzun behar direla. Jolas honen bidez, aldizkaria arretaz irakurtzeko amu bihurtzen da Interneta. Irakurzaletasuna sortzeaz gain, teknologia berriak modu egokian erabiltzen ikastea ere bilatzen du **Birakusik**.

**Aldizkaria: balio heziketa eta heziketa bisuala**

**Birakusi** aldizkarian alero ipuin bat kontatzen zaigu, umorearen tinta darriona. Narrazioak iradoki ditzakeen mezu edo balioak oso zainduta daude. Etorकिनen gaia, hezkidetza, ezinduen integrazioa, oinarrizko trafiko araudia eta bide segurtasuna edo sexu heziketa

bezalako gaiak dira ipuinen bidez ekarriko dizkigutenak.

Testuaren mezuak bakarrik ez du hezitzen, ordea. Irudia dagoen lekuan heziketa bisual bat ere badago, estetika bat, sinbologia bat, eta beraz, diseinuari ere merezi duen garrantzia eman nahi izan diote aldizkariaren egileek. Arte Ederrak ikasi dituztela bistan da. Lehen





alea ordenagailu bidezko irudiez osatu dute. Aurrerantzean materiale desberdinak erabiltzeko asmoa dute, haurrek ere ikus dezaten irudia sortzeko beti ez dela arkatza edo akuarela soilik erabili beharrik.

Formatu aldetik ere, aldizkaria eskuliburu baten neurrikoa da, egileek ez baitute nahi apalean gorde eta hautsak hartzen egongo den liburu bat izatea. Eskutan erabili, margotu, moztu eta puskatu egingo den aldizkaria izatea nahi dute. Aldizkari hau erabiltzeko baita: web gunean abenturari jarraipena emateko giltza sekretua da aldizkaria.

[www.birakusi.com](http://www.birakusi.com)

Aldizkarian irakurritako istorioari jarraipena emateko, web gune honetan lau bide jartzen zaizkigu aukeran. Baina pantailaz aldatzeko "pasahitz" bat eskatzen da beti, alegia, galdera bat erantzutea. Une horretan **Birakusi** aldizkaria jo beharra dago derrigor, eta arretaz erreparatu, erantzuna aurkitzeko. Istorioaz gain, web gunean denbora-pasak, joko interaktiboak, esaera zaharrak, asmakizunak eta eskulanak aurki ditzakegu.

Egileek diotenez, ordenagailu aurreko jarrera da landu nahi dutena. Ez dute nahi haurra pantaila aurrean mozolotuta gelditzerik, isolatuta. Horregatik, batzuetan "pasahitza" lortzeko gurasoari egin beharko dio galdera haurrak, ingurukoari laguntza eskatzeko jarrera indartuz. Edo hurrengo pantailan,



lan, istorioko gertaera baten aitzakian, birziklatutako materialaz eskulan bat egitea proposatuko zaio haurrari, puskatutakotik sor daitekeela jabe dadin.

#### Non lortu aldizkaria?

Urtean lau ale ateratzen dira, urtaro bakoitzeko bat. Harpidedun eginez gero, aldizkaria postaz jaso daiteke etxean. Eskaera [www.birakusi.com](http://www.birakusi.com) web gunean bertan egin daiteke, edota telefono honetara deituta: 635 75 97 73. **Birakusi**ren egileek euren proiektuaren berri emanez aurkezpenak ere eskainiko dizkiete irakasleei eta ikasleei. Beraz, interesa duen ikastetxe oro eurenkin jar daiteke harremanetan. •

**Birakusi aldizkarian irakurritako istorioari jarraipena ematen zaio web gunean. Jokoak, esaera zaharrak eta asmakizunak ere agertuko dira pantailan. Baina atal batetik bestera joateko, "pasahitza" zein den asmatu behar. Aldizkarian adi erreparatuta aurkituko dugu zein den klabe sekretua.**





## Ipologun taldeak Mexikoko haurrei laguntzeko deia egiten du

Gaur egun munduko herrialde askotan aritzen dira Gubernuz Kanpoko Erakundeak lanean. Modu batera edo bestera lurralde horietako herritarrei laguntzea dute xede. Hori dela eta, jende asko joaten da boluntario bezala zuzeneko laguntza eskaintzera. Baina hanetik ere, gure herritik, lagundu dezakegu, eta gure eskolatik ere bai. Ipologun taldeak horretarako aukera ematen digu. Talde honek Mexikoko Ipoderac erakundeari laguntzeko bidea irekitzen die ikasleei.

Ipologun taldea Euskal Herriko gazte batzuek sortu dute. Mexikoko Ipoderac erakundearen egoitzan egon dira boluntario bezala lan egiten eta han dituzten beharrak ikusita, euren laguntzeko proposamena luzatzen dute.

### Zer da Ipoderac erakundea?

Erakunde hau kale gorrian bizi diren haurrei laguntzeko sortu zen Mexikon. Hezitzaileek eta boluntarioek egiten dute lana haur horiek bizimodu duina izan dezaten. Lehendabizi kalean bertan egoten dira hurrekin eta prozesu bat jarraitzen dute. Izan ere, kalean inolako araurik gabe bizi diren haurrak bat-batean etxe batera eramatea oso zaila baita. Ondoren, bigarren fasean, zenbait arau dituen instituzio batean sartzen dira eta azkenik, hirugarren fasean, etxe batera joaten dira bizitzera, Mexikoko Puebla estatuan dagoen

Atlixco herrira, hain zuzen ere.

Guztira 72 haur eta gazte bizi dira adinaren arabera sei etxetan banaturik, etxe bakoitzean hezitzaile banarekin. Goizero, Atlixcoko eskolara joaten dira ikastera, baina hara joan aurretik gosalduta eta etxeko garbiketa egin behar izaten dute. Arratsaldean lana egiten dute etxean bertan: baratzen, lorategian, aroztégian edo gazta edo xaboia egiten. Modu horretan, nolabaiteko dinamika jarraitzen dute eta hori oso garrantzitsua da kaleko kaosetik datozen gazteentzat. Arau garrantzitsu bat dago: ezin dute ezer egin gabe egon, ikasi edo lana egin behar dute. Dena den, guztiek ez dute jasaten bizimodu berria, eta batzuk kalera itzultzen dira. Beste batzuk, ordea, unibertsitateko ikasketak egitera edo lanbide bat ikastera iristen dira.

Lana egiteagatik bi gauza ematen dizkiete: aste-saria eta aurrezki libreta. Aste-saria oso kontrolatua edukitzen dute adinaren arabera. Eta aurrezki libretan jasotzen duten dirua gero eskolarako behar duten materiala erosteko erabiltzen dute, besteak beste. Modu horretara diruaren balioaz jabe daitezten lortu nahi dute.

### Ipologunen deia

Ipologun taldeak bi helburu ditu: sentsibilizazioa bultzatzea eta haur eta gazte mexikar horiei bekak ematea ikasketetan lagundu ahal izateko.

Lehenengo ekimena aurrera ateratzeko sentsibilizaziorako proiektu bat prestatu dute DBHko ikasleei begira. Irakasleek euren ikasleekin lantzeko lan bat da, eta horretarako prestatu dute ikaslearen Ipolan koaderno eta irakaslearentzako gida. Nolanahi ere Ipologun taldeko kideen laguntza beti eskura dute. 20 saiotan burutzeko moduko proiektua da eta lau gaitan banaturik dago: mundua, Mexiko, kaleko haurrak eta Ipoderac.

Bigarren ekimenari dagokionez, beken bidez laguntzea, alegia, norbanakoei zuzendua dago. Edonork diru kopuru bat eman diezaioke haur bati eskolarako dituen beharretarako. Hori ez da gauza berria, haurren aita edo amabixi izatea ohikoa baita, baina kasu honetan dirua heziketarako da.

Modu batera zein bestera, bi munduren arteko hurbilpena eta elkarlana posible egingo duen bide bat eskaintzen du Ipologunek, eta bere proposamenak eskura daude. •

[ipologun@hotmail.com](mailto:ipologun@hotmail.com)



# kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

## Egin dezagun Salt solidarioa... baita helduen prestakuntzan ere<sup>1</sup>



Itziar ARAMAIO

Euskal filologoa

Jarraian aurkeztuko dugun proiektua Kataluniako Salt herrian esperimentatu da 2002-2003 urte bitartean. Proiektu honen, besteak beste, etorkin helduei katalana irakastea du helburu. Helduei begira dagoen arren, kontuan izandako lan metodologia, printzipio pedagogikoak edota printzipio ideologikoak EAEnko haur etorkinei euskara irakasteko ere baliagarriak gerta daitezkeela inuditu zaigu eta, arrazoi hori bide, esperientzia honen berri ematea erabaki dugu.

“Egin dezagun Salt solidarioa... baita helduen prestakuntzan ere” proiektua CFA Les Bernardes/Escola d'Adults de Salt helduen heziketarako zentrotik jaio da. Berau Kataluniako Generalitateko Gizarte Ongizate Sailaren barruan dago.

Zentro honek helduen trebetasun kognitiboak eta sozialak hobetzeko mota guztietako jarduerak antolatzen ditu: sozialak, kulturalak, hezkuntza arlokoak, hiritarrak, politikoak eta prestakuntza arlokoak, esaterako. Bere helburuen artean, besteak beste, pertsona helduei autonomia eta autoestimua pertsonala ematea, hauen ezagutza eta gaitasun profesionalak hobetzea, harreman aukerak sakontzea eta beraien inguruko errealitatearen iritzi kritiko koherente bat egiteko gai izatea daude. Azken finean, esan genezake, zentro honek lortu nahi duena zera dela: alfabetatu gabeko pertsonak, etorkinak eta abar Kataluniako gizartearen dinamikan naturaltasunez parte hartzeko gai izatea.

**Salt-eko helduen hezkuntza zentroaren lan egiteko modua**

Helduen heziketan hogeitabost urte baino gehiagoko esperientzia izan

ostean, gaur egun, esperientzia horretan oinarrituz, beraien hezkuntza proiektu guztiek lau printzipio nagusi dituzte:

**1) Printzipio ideologikoak:** heziketa iraunkorraren eta herri heziketaren printzipioak hezkuntza praktikan txertatzea da lelo nagusia. Hau da, beraien ustez heziketak prozesu etengabea, dinamikoa, berritzailea, integrala eta integratzailea izan behar du. Errealitatean oinarritutako didaktikan sinesten dute, errealitatea abiapuntutzat hartuz, *ikasten ikasteko*, bai gela barruan, bai kanpoan. Hala bada, besteak beste, teoria eta praktika elkarrekin lotzen, lan intelektualaren eta eskulanaren arteko dikotomia gainditzean, komunikazioan, elkarriketan eta balioetan oinarritutako heziketa bultzatzen... saiatuko dira.

**2) Printzipio pedagogikoak:** hezkuntza praktika **pedagogia kritikoa**ren printzipioetara eta esperientzietara bideratu nahi da. Hezkuntzak kulturak eta gizarte harremanak birsortzeko eta, bereziki, ordezkoko kultur elementuak eta gizarte harreman berriak sortzeko balio behar du. Heziketa ez dute ulertzen elementu neutro lez, eta ondorioz, ikasle bakoitza aske da bere ekarpena

<sup>1</sup> Joxemi Zumalabe Fundazioa (2003), *Mundua Euskal Kulturaren*. Euskal kulturaren normalizaziorako eta kultura aniztasunaren elkarbizitzarako ekimena. JARDUNALDIA, 2002ko azaroaren 23a, Andoain. (Dosierra)



egiteko, bere iritzia emateko eta defendatzeko. Hala bada, zentro honetako hezitzaileek, kultur eskarmentu eta bizi esperientzia handiko pertsona bezala ikusten dituzte ikasleak, curriculuma eratzeko orduan hori kontuan hartuko dutelarik. Hau da, parte-hartzaileen kultur ezagutza eta gizarte esperientzia kontuan izanda, kulturaren alderdi in-telektualak eta trebetasun kognitibo eta sozialak barne hartuko dituen curriculuma eratuko dute. Hori guztia lortzeko, hezitzaileek batez ere ikasleen arteko elkarrizketa prozesuak bultzatu behar dituzte.

**3) Printzipio metodologikoak:** Paulo Freirek plazaratu zituen kontu metodologikoei ahalik eta zuzenen jarraitzen saiatuko dira. Adibide bezala, hona hemen batzuk:

- Gogoeta egitea, ebaluatzea, programatzea, ikertzea eta eraldatzea pertsonon berezitasun diren aldetik, ezin ditugu baztertu ikasketa prozesutik.

- Gizakia eraldaketarako prestatu dago. Beraz, beharrezkoa da fatalismoa alde batera uztea eta baikortasuna nahiz itzaropena lantzea.

- Heziketak, prestakuntza teknikoa, zientifikoa eta profesionala beharrezkoak dituen bezala, ametsak eta utopiak ere ezinbesteko ditu.

- “Galdera bidezko heziketa” defendatzen dute, ezagutza prozesuak ezinbestekoa duen jakin-mina zorrozteko, bultzatzeko eta indartzeko.

- Mota honetako proiektuek dituzten helburuak lortzeko, hezkuntza arloko profesionalak hezkuntza teknikak menderatzea oso garrantzitsua da.

- Elkarren arteko komunikazioa bideratzea eta bultzatzea da hezkuntza sendo bat burutzeko oinarritzko pausotako bat.

- Hezkuntzaren zeregin nagusia errealitatea agerian jartzea den aldetik, harantzago doan edozein hezkuntza praktikak munduaren irakurketa, hitzaren irakurketa, testuaren irakurketa eta testuinguruaren irakurketa dikotomia ezin ditu saihestu; bestela, pedagogiaren bermea galdu eta ideologia huts bihurtzen da.

- Hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsonak tokian-tokiko errealitatearen arabera hezi behar dira, baina betiere, beraien jatorria eta mundu osoa gogoan izanda.

- Hezkuntza demokratiko bat egin nahi badugu, hezkuntza horrek oso lotuta egon behar du hiritartasunarekin.

- ...

**4) Antolaketa printzipioak:** beraien hezkuntza zentroa askatasunean, lan kooperatiboan eta eztabaida demokratikoan oinarritutako gune bihurtu nahi dute. Horretarako, ezinbestekoa ikusten dute, bai hainbat komunitateen bai eta gizarte mugimenduen arteko elkarrizketa.

### Hezkuntza proiektuen ezaugarriak

Aipatu berri ditugun lau printzipioetan oinarrituz, laburpen gisa, ondoriozta genezake, Salt-eko helduen hezkuntza zentro honetatik jaioko diren hezkuntza proiektuek bost ardatz nagusi izango dituztela. Lehendabizi, *integritasuna* azpimarra genezake. Integritasuna, bai zentroaren prestakuntza eskaintza osatzen duten programa eta jarduera guztietan, bai eta zuzeneko, auto-prestakuntzako zein urrutiko modalitateetan. Bigarrenik, ikasle multzoei, modalitateei, ordutegiei eta abarri begira dagoen *malgutasuna* aipa genezake. Hirugarrenik, ezin dugu ahantzi ikaskuntzari eta irakaskuntzaz kanpoko harremanei ematen dien *banan-banako arreta* ere. Laugarren ardatz legez, araututako eta arautu gabeko irakaskuntzen arteko *iragazkotasuna* dugu. Eta bosgarren eta azken ezaugarria *elkarrizketa kooperatiboa* izango litzateke. Elkarrizketa kooperatiboa dute oinarri bai hurbilen duten inguruarekin (erakunde, entitate, kolektibo eta pertsonak), bai metodologian (metodologia psikosozial eraginkorren eta esku-hartzaileen erabilera), bai eta antolakuntzan ere (harrerari eskainitako arreta, orientazioa, prestakuntza ibilbidea eta lan plangintza egitea, motibazioa, autonomia pertsonala bi-

latzea, esku-hartzaile bakoitzaren prestakuntza prozesua laguntzea eta ebaluatzea).

Kontuak kontu, egia dena da, hezkuntza praktikan ardatz hauek lortu edota bideratzeko, gizarte eta komunikazio eredu batzuetara hurbiltzea ezinbestekoa dela. Hori dela eta, beraiek planteatzen duten hezkuntza sistema aurrera eramateko, besteak beste, ondorengo ezaugarriak izango dituzten gizarte eta komunikazio ereduetan oinarrituko dira:

1. Eskolaren eta curriculumaren antolamendua malgua eta aldaketei errepikatzen diena izango da.

2. Ikasleek zentrorra heldu aurretik zekitena, berauek duten eskolaz kanpoko ezagutza zein esperientzia, eta toki zein komunitate garapenarekiko lotura aintzat hartuko dira hezkuntza plangintza egiteko orduan.

3. Hezkuntza proiektuak ondorengo profesional taldeez osatuak egongo dira: irakasleak, gizarte hezitzaileak,

**Zentro honek lortu nahi duena zera dela: alfabetatu gabeko pertsonak, etorkinak eta abar Kataluniako gizartearen dinamikan naturaltasunez parte hartzeko gai izatea. Eta hemen ere hori lortu nahi da haur etorkinekin.**



UdGko pedagogoak, Irakasletza eta Gizarte Heziketako Ikasketetako Practicum-a egiten ari diren ikasleak, GRAMCeko boluntarioak eta profesionalak.

4. Ikaskuntza versus irakaskuntza.

5. Aldaketak sortu eta egiteko gai izan daitezen hezi, eta ez egokitzapenak egiteko.

6. Ikasleak pertsona heldutzat hartuko dira, bakoitza bere kulturarekin eta interesekin, beharrekin, ikasketekin, trebetasunekin eta alde zuzenak izandako balio handiko esperientziekin.

Idatzian zehar aipatu ditugun ezauzgarri, eredu edo bereizgarriek argi adierazten dute Salt herriko helduen hezkuntza zentro hori Aldi Instrumentalaren (AI) aldeko apustu egiten ari dela. Aldi Instrumentala helduen prestakuntza Legean aurreikusita dago. Bere azken helburua (Aldi Instrumentalarena), bai etorkinei, bai eta bertokoei, eguneroko bizitzan aurkitzen dituzten oztopo linguistikoak zein irakurketa nahiz idazketari dagozkienak era autonomoan gainditzeko laguntzea da.

### Egin dezagun Salt solidarioa... baita helduen prestakuntza ere proiektua

Orain arte, Salteko zentro honen hezkuntza "filosofiaz" mintzatzen aritu gara. Baina, helduen hezkuntzari begira dagoen zentro honetan, nola sortu

zen **"Egin dezagun Salt solidarioa... baita helduen prestakuntza ere" proiektua?**

Salt herrian, urtetik urtera etorkinen kopurua izugarri ari da igotzen. Aldi berean, komunitatez kanpoko jatorria duten etorkinen prestakuntza eskaria ere bai. Hala bada, zentro honetan bereaiek finkatua zuten hezkuntza filosofian zuzenean oinarrituz, tokian tokiko prestakuntza plan bat sortu eta gauzatzearabaki zuten. Tokiko prestakuntza plan hori, **"Egin dezagun Salt solidarioa... baita helduen prestakuntza ere"** izenez izenpetu zuten.

Proiektua Joan Colomer Ribasek zuzendua dago -zentroko ikasketak burua eta Airen arduraduna- eta Salteko Gizarte Ongizate Saila-CFA Les Bernardes/Escola d'Adults-en ardura du, Salteko Udalaren eta Gironako Unibertsitatearen babes instituzionalarekin.

Proiektuak sei helburu nagusi ditu:

- 700 etorkinen harrera eta prestakuntza antolatu, 500 mintzapraktikako taldeetan eta 200 alfabetatze taldeetan.

- Alfabetatze irakasleak izateko 100 gazte prestatu.

- Proiektu honetan parte hartuko duten etorkinei harrera herriari eta haren ezaugarri kultural, sozial eta politikoa adierazgarrienei buruzko informazioa eman.

- Berezikigazteen artean kulturen arteko ezagutza eta harremanak sustatu.

- Xenofobiaren eta arrazakeriaren

aurka borrokatuz gizarte kohesioa hobetu.

- Eta herritarren artean elkartasuna eta lankidetzaren sustatu.

Helburu horiek lortzeko, antolatzailerik ustez, plana eratzen duten erakundeek behin betiko proiektu bat egin beharko dute, besteak beste, ondorengo elementuetan oinarrituz: "herriak berak alfabetatzen du herria" komunitate plana abian jarri; herriaren beraren eta nazioaren errealitatea ezagutzeko hasierako modulu bat sortuz; jarduerak eta material guztiak katalanizatuz; proiektua batez ere iritzi berriak diren etorkin gazteei eta helduei begira jarri; nagusiki Salteko bizi diren gazteak eta unibertsitateko ikasleak inplikatuz; metodologikoki "Maitasunaren Pedagogia" eredu oinarrituz (Orlando Pineda) eta Paulo Freirek irakatsitakoa zein parte-hartzaileen esperientzia jasoz; eta arreta hiru esparrutan jarri: lana, hiritartasuna eta osasuna.

Horrez gain, 500 lagun mintzapraktikan eta 200 alfabetatze izateko 100/120 irakasle prestatu behar dira, horrela mintzapraktikako 40-50 talde eta alfabetatzeko 30-40 sortzeko. Bakoitzak astean hiru egunetan (gehi ebaulazio eta prestakuntzako beste bat) burutuko dituen ordu eta erdiko saioak, goizez, arratsaldean zein gauez. Mintzapraktikako taldeak lau hilabeteko moduluetan antolatzen dira (urtarrila/otsaila/maiatza/ekaina), guztira 60 eskola ordurekin (40-50 benetakoak); eta alfabetatze taldeak urtariletik ekainera bitartean (bost hilabete, 90 bat eskola-ordu, 70-80 benetakoak).

Artikulu honi bukaera emateko, idatzi honen hasieran adierazi ditugun hitzei heldu nahiko nieke. Argi dago, proiektu hau etorkin helduak bai linguistikoki bai kulturalki Katalunian integratzeko sortua dagoela; baina gure iritziak, bere hezkuntza sistema edo filosofiatik hainbat elementu jaso eta baliagarriak gerta dakizkiguke haur etorkinak euskalduntzeko. Kontua guk ere -baina haur etorkinei begira-, "tokian tokiko prestakuntza plan" bat egitean datza. •

## Hitzaldiak

Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan gaiaren inguruko kezkei erantzunak emateko, interesgarriak gerta daitezkeen HITZALDIAK

### Conference on identity and diversity

Non: ZARAGOZA  
Noiz: 2003ko urriaren 9tik 10era  
Informazioa:  
Beatriz Penas  
bpenas@posta.unizar.es  
Tel.: 976 76 15 28/976 21 84 55

### Oral Language of School Children: Acquisition, Teaching, Remediation

Non: GRENOBLE (Frantzia)  
Noiz: 2003ko urriaren 23tik 25era  
Informazioa:  
oral2003@grenoble.iufm.fr  
Tel.: 00 33 476 747 337

### EXPOLINGUA Berlin. More linguistic diversity in Europe

Non: BERLIN  
Noiz: 2003ko azaroaren 21etik 23ra  
Informazioa:  
<http://www.expolingua.com/english/index.en.htm>

### The Unifying Aspects of Cultures. Standard Variations and Language Conceptions.

Non: VIENA  
Noiz: 2003ko azaroaren 7tik 9ra  
Informazioa:  
Rudolf Muhr, Dept. of German University of Graz, Austria  
muhr@gewi.kfunigraz.ac.at  
<http://www.inst.at>

### International Conference on Language, Education & Diversity

Non: HAMILTON (Zelanda Berria)  
Noiz: 2003ko azaroaren 26tik 29ra  
Informazioa:  
<http://www.led2003.ac.nz>

## Irakurleen txokoa

### Txoko hau zeurea duzu, irakurle, eta bi aukera luzatzen dizkizugu: galderak egitea eta erantzunak ematea.

Lehenengoak kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko kezkek, galderak eta zalantzak bideratzeko aukera ematen dizu. Horretarako, bi helbide hauetakoren batera idatzi besterik ez duzu egin behar:

**itziamayo@msn.com** edo **aldizkaria@hikhasi.com**

Zure izena edo ikastetxearen izenarekin batera, helbide elektronikoa jartzea eskatzen dizugu, erantzuna emateko zurekin zuzenean harremanetan jar dadin nahi duen oro.

Bigarren aukera erantzuna ematearena da. Hemen agertzen diren galderei edonork eman diezaike erantzuna, proposamena, aholkua, laguntza, iradokizuna... bi modutara: galdera egiten duenarekin zuzenean harremanetan jarriz edo aldizkari-  
ra idatziz (**aldizkaria@hikhasi.com**).

Hartu-emanetarako bide berri honekin, dauzkagun kezkek denon artean eta elkarri gure esperientziak kontatuz bidera ditzakegu. Anima zaitetz!

*Ekaineko aleko irakurleen txokoan Berriatuko herri ikastetxe publikoak zera galdetzen zuen: nahiz eta haur etorkin bakar bat izan beraien zentroan, ea haur horren ikasgelan behinik behin umetxo horren lurralde eta kulturaren inguruan hitz egin behar ote zuten. Guk, GARAIPEN elkarteko kideok ("Emakume etorkinen elkarte"), uste dugu zehazki ikastetxetan, etorkinak izan edo ez, kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko heziketa haur guztiei eskaini behar zaiela. Izan ere, inmigrazioa eta emigrazioa, betidanik munduan izan ditugun errealitateak dira. Gaur egun gero eta etorkin gehiago datoz hirugarren mundutik lehen mundura, baina hori ez da beti horrela izan. Gogoan izan behar dugu, esaterako, euskaldunek garai batean Argentina, Txile edo Amerikako Estatu Batuetara emigratu zutela bizi egoera hobearen bila. Honekin esan nahi dugu, errealitate hau zikloka doan errealitatea dela, eta inoiz ez dugula ahaztu behar lurralde guztiek noizbait jasan dutela inmigrazio eta emigrazio faseren bat. Beraz, gizarte komunikatiboa, berdintasunean oinarritua eta hobea lortu nahi badugu, haurrek (bai etorkinek, bai eta bertakoek) errealitate hauek zergatik, noiz, nola... gertatzen diren jakin behar dutela eta kultura nahiz hizkuntza aniztasunaren inguruko heziketa ere jaso behar dutela uste dugu.*

GARAIPEN

[mavicms@yahoo.es](mailto:mavicms@yahoo.es) / [garaipenpv@yahoo.es](mailto:garaipenpv@yahoo.es)

Antzeko esperientziarik izan baduzu eta proposamenik, aholkurik edo iradokizunik baldin baduzu, erantzun iezaiezu, eskertuko dizute eta!



Bide eginean jarraitzen  
dugu zuen ekarpenekin  
eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu  
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa  
duen edonoren parte-  
hartzea gustu handiz  
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo  
euskal hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.



# Berriak

## urria

# Argitalpenak



**Kandinskyren tradizioa**  
Ramon Saizarbitoria  
EREIN

Irrikitan dago Miren etorkizunak gordetzen dizkion sekretuak jakiteko. Nor ote, zein izen ote du bihar bere bikotea izango denak? Errusiako sineste zahar baten arabera, Urtezahar gauean kalean topatzen duzun lehen pertsonak bezalaxe edukiko du izena etorkizuneko senargaiak. Kandinskyren emazteari gertatu ziztaion hori. Mirenek frogatu egingo du •




**Itsasoa etxe barruan**  
Harkaitz Cano  
ELKAR

Lehen irakurleentzako liburu honen protagonista Jorge da. Sinetsita zegoen bere etxeko sukaldea itsasoa zela. Sukaldeko horma zuria eta urdina zen: urdina erdiraino eta zuria hortik sabairaino. Horregatik sartzen beti Jorge sukaldera urpeko betaurreko eta guzti. Gurasoak, ordea, kezkatzen hasiziren eta horiz margotu zuten horma. Eta durbantearekin sartzen hasi zen •



**Beste sexualitateak**  
Sexu aniztasunerantz  
GAIK

Historiako garai eta kultura ezberdinetan harreman homosexualekiko zer jarrera egon den azaltzen du liburuak. Bestetik, homosexualitateari esplikazio bat bilatzeko jarrera temosoan izan duenez beti zientziak, sortu izan diren hainbat teoria ezagut ditzakegu liburu honen bidez, baita gay eta lesbianen borroken berri jaso ere •




**Ingurumen Hezkuntzaren integrazioa EAEko Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzan: diagnostikoa**  
EUSKO JAURLARITZA

Ingurumen Hezkuntzak egun duen egoeraren berri biltzen du ikerketa honek, aurrera zertan hobetu ikusteko. EAEko ikastetxeetan zuzendaritzari eta irakasleei egindako iritzi azterketaren eta ikasleei egindako proben ondorioak biltzen ditu •



**Animalia harrigarriak**  
Juan Kruz Igerabidek itzulia  
IBAZABAL

Noek bere ontzian sartu dituzten munduko animaliak, estu eta larri, uholdeak eraman ez dituzten. Semeak, berriz, Imajinoek, irudimenaren zurrumbilona naufragatzea du gustuko. Imajinoek begiak irekita zein itxita ikusten duen animalia bakoitza bere koadernoan marrazten du, kolore biziekin eta definizio bitxiekin •



**Astronomia**  
IKAS

Astronomia 2. eta 3. ziklotan lantzeko ikasmateria da. Jarduera esperimentalen eta eskulanean bidez ikasleak ezagutzarako bidea egiteko aukera ematen du. Irakasleentzat eta ikasleentzat sekuentzia eta jarduera fitxak biltzen dira bertan. Euskaratik frantsesera eta frantsesetik euskararako hiztegia ere badakar, kontzeptuen definizioekin batera •



# Hik Hasi Udako Topaketak finkatuta daude jadanik



Oso zapore onarekin bukatu ziren uztailen **IV. HIK HASI Udako Topaketa Pedagogikoak**. Hiru egunetan zehar 27 ikastaroetan ibili ziren hartzaileak zein emailleak oso gustura gelditu dira egun haiek eman dutenarekin. Egun trinkoak, mamitsuak eta emankorrak izan ziren.

Laugarren urtez egin dira Topaketak eta jadanik finkatuta daudela esan daiteke. Irakaskuntza arloan eta hortik at ere erreferentzia bilakatu dira.

Informatikan, adibidez, beste urtetan bezala, oso erantzun ona izan zuten ikastaroek. Teknologia Berrien inguruan hainbat esparru jorratu ziren: web orria, SPC hizkuntza, Klik... eta denak euskaraz.

Ikastaroen artean dauden txokoek ere erantzun ona izan zuten (Literatur txokoa, Artearen txokoa eta Historiaren txokoa). Aurrerantzean txoko horiek mantendu egingo dira eta urtero-urtero gai horien inguruan gauza berriak landuko dira.

Euskal testu liburuen inguruko hitzaldi batekin eman zitzaien hasiera Topaketei, eta euskal ikuspegi hori hainbat ikastarotan ere landu zen: euskal dantzak, euskal kultura tradizionala, euskaraz jolasten... Gaur egun asko hitz egiten da euskal curriculumaz eta hori eratzeko beharraz. Bada, ikastaro horiek lagungarri izan daitezke curriculum hori eratzen joan dadin.







## “Guztientzako eskola” biltzarra egingo da Donostian urriaren amaieran

2003. urtea pertsona ezinduen Europako urtea izendatua dago. EAEn orain dela 20 urte hasi ziren heziketa bereziko planak aurrera eramaten. 20 urte beranduago biltzar bat antolatu da integrazio plan haiei bultzada bat eman nahian eta eguneroko integrazio jardunean guztientzako eskolaz hausnarke-ta egiteko helburuarekin.

Aipatu biltzarra Donostiako Kursal Jauregian izango da urriaren 29, 30 eta 31n.

Informazio gehiagorako:  
[www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net)

## Bergarako UNEDen psikomotrizitate jardunaldiak azaroan dira

Urtero bezala Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate Eskolak **Psikomotrizitate Praktikoa Jardunaldiak** antolatu ditu. Gasteizko Europa Jauregian izango dira **azaroaren 7, 8 eta 9an** eta honako egitaraua prestatu dute seigarren ediziorako:

### Azaroak 7, ostirala

- 17:00etan, materialaren banaketa.

- 18:00etan, jardunaldien irekiera.

- 18:15etatik 20:30etara.

\* Hitzaldia. **Bernard Aucouturier:** *Begiratu bat iraganari: praktika psikomotorearen sorrera.*

\* Ikus-entzunezkoak, bideoak eta gardenkiak.

### Azaroak 8, larunbata

- 9:30etan, hitzaldia. **Alberto Lasa:** *Psikomotrizitatea eta Psikiatria. Mugimendu-garapenaren eta gorputz-eskemaren psikopatologia.*

- 15:30etatik 19:30etara.

\* Hitzaldia. **Bernard Aucouturier:** *Praktika Psikomotorea gaur.*

\* Ikus-entzunezkoak, bideoak eta gardenkiak.

\* Istorioa. **Traspasos Danza taldea:** *Kaixo!*

### Azaroak 9, igandea

- 9:30etatik 13:30etara.

\* Hitzaldia. **Eneko Landaburu:** *No-la lagundu elkari haurrei lagundu ahal izateko.*

\* Mahaingurua. **Bernard Aucouturier** eta Bergarako Eskolako irakasleak.

### Informazio gehiagorako:

UNEDeko Psikomotrizitate Eskola  
San Martin de Agirre plaza, z/g  
20570 Bergara  
Tel.: 943 769 033 Faxa: 943 762 721  
E-posta: [info@bergara.uned.es](mailto:info@bergara.uned.es)

## Abentura liburuen inguruko biltzarra Gasteizen

Galtzagorri Elkartek abentura liburuei buruzko biltzarra antolatu du. Gasteizko Goiuri Jauregian izango da.

### Azaroak 13, osteguna

- 19:00 Aurkezpen ekitaldia.

- 19:30 Sarrerako hitzaldia: **Gemma Lluch:** *Star war, abenturak kontatzeko modu klasiko bat.*

- 20:30 Irakurketa zuzeneko musikarekin: **Patxi Zubizarreta eta Jabier Muguruza.** *28 letra eta 7 nota munduari itzulia emateko.*

### Azaroak 14, ostirala

- 9:30 Hitzaldia: **Teresa Colomer:** *XX. mendeko abenturak.*

- 11:00 Hitzaldia: **Joanes Urkixo:** *Heroiaren bidaia.*

- 12:30 Hitzaldia eta diapositibak: **Teresa Duran:** *Abenturaren irudi bizia.*

- 16:00 Hitzaldia: **Marta Gomez Mata:** *Abenturatako klasikoen edizioa.*

- 17:30 Hitzaldia: **Emilio Pascual.**

*Sorreran abentura izan zen.*

- 19:00 Ipuin kontalariak: **Oihulari Klown.**

### Azaroak 15, larunbata

- 9:30 Hitzaldia: **Aingeru Epalza:** *Etxean neukan Yukongo urre guztia.*

- 10:30 Hitzaldia: **Marilar Aleixandre:** *Ziurgabetasuna, arriskua, familia gatazkak: abenturatako nobelaren sustraiak.*

- 11:30 Hitzaldia: **Jesus Ballaz:** *Abentura liburuak imaginario sinbolikoen eraikuntzan.*

- 13:00 Mahaingurua:

**Aingeru Epalza, Marilar Aleixandre, Jesus Ballaz.**

### Informazio gehiagorako:

Egunbide Congressos  
Tel.: 945 146 630 Faxa: 945 146 827  
E-posta: [egunbide@egunbide.es](mailto:egunbide@egunbide.es)  
Galtzagorri Elkartea  
Tel.: 943 471 487

# Muga guztien gainera ...euskaraz!

## Arabar Errioxako Assa ikastola

25 urte beteko ditu aurten Lapuebla de Labarcako Assa ikastolak. Errioxako muga-muga, Ebororen ibaiertzean dagoen 900 biztanleko herri honetako eskola bakarra da ikastola, hots, herriko eskola. Gaur egun 290 ikasle inguruk betetzen dituzte ikastolako gelak, korridoreak eta jolaslokiak. Euskararen aldeko apustu garbia egin zuten herriko hainbat gurasok 1978an eta gaur egun ederki finkatutako proiektua da. Gurasoak, irakasleak eta, oro har, herri guztia harro egoteko modukoa.

Assa ikastola Lapuebla de Labarcan dago, baina ez da hango ikastola, eskualde osokoa baizik. Inguruko 23 herritako 2-18 urte bitarteko ikasleak joaten dira, hasi eskolaurretik eta Batxilergo bitartekoak. Mainueta eta Samaniego herrietan ere eskolaurreko gelak ditu eta 6 urte betetzen dituztenean joaten dira handik Lapuebla de Labarcara. Bigarren Hezkuntza bukatzen duten ikasle batzuk Gasteizera edo Logroñora joaten dira moduluak egitera eta beste batzuk Assan bertan gelditzen dira Batxilergo ikasten.

Eskualdeko eskola izateak ikasleak euren herrietatik ateratzera behartzen ditu, ikastolara joan ahal izateko. Zenbait herritako ikasleek ordubeteko bidaia egin behar izaten dute ikastolara iristeko. Eta hala ere, gurasoak zein ikasleak prest daude esfortzu hori egiteko. Eta dena arrazoi indartsu batek bultzatzen dituelako: euskaraz ikastea.

Eskolaurrean guztira 60 haur dabilta, Lehen Hezkuntzan 64, Bigarren Hezkuntzan 114 eta Batxilergoan 60. Haur horiekin dabilta irakasleak eta langile ez irakasleak, berriz, 33 dira.

### 1978ko guraso bilerak

Euskara galdua zegoen Lapuebla de Labarcan baziren aurreko belaunaldien hizkuntza hura errekuperatu nahi zuten batzuk. Asmo hark bultzata euren seme-alabentzat ikastola bat martxan jartzeko ideia sortu zitzaien eta bilerak egiteari eta antolatzeari ekin zioten. 1978. urtean sortu zen mugimendu hura eta 1979ko urtarrilerako martxan zen inguruko amabirjina baten izena hartu zuen ikastola: Nuestra Señora de Assa ikastola. Zenbait urte geroago izena aldatu zioten eta Assa ikastola da harrezkero.

Lehen andereñoa Leitzatik joan





zen Miren Azpiroz izan zen eta 18 haurrekin egin zuen lehen ikasturtea.

Ikastola askotan bezala, Lapuebla de Labarcan ere ohiko arazoak izan ziren hastapeneko urte haietan: leku egokirik eza, diru falta... baina okerreza zenbait herritarren kontrako jarrera zen: andereñoek prestakuntzarik ez zeukatela, ikastolan ez zela ikasten eta abar zioten. Etengabeko konparaketak egiten zituzten eta ikastolakoek egiten zutenak balio zuela erakutsi behar

**Inguruko herrietako zenbait ikaslek ordubeteko bidaia egin behar izaten dute eta hala ere gurasoak zein ikasleak prest daude esfortzu hori egiteko. Eta dena arrazoi indartsu batek bultzatzen dituelako: euskaraz ikastea.**

izaten zuten beti. Edonola ere, proiektuaren bultzatzaileek ideiak argi zituzten eta lan izugarria egin zuten kontra zituzten herritarren usteen aurka. Lehendabiziko ikasturte haren amaieran haur txiki haiek euskara ikasi zutela ohartu ziren. Hurrengo urteetan ere jendea konturatu zen haurrek berdin ikasten zutela euskaraz nahiz gaztelaniaz, eta gainera, euskara ikasten zutela. Beraz, helburuak betetzen ziren. Inguruko herrietako jendea ere interesa agertzen hasi zen eta haiek ere ikastolara joaten hasi ziren.

Aipatzekoa da Lapuebla de Labarcan bertan ez zegoela beste eskolarik. Eskolaurrea bazegoen, baina 6 urterekin Biasteriko eskola nazionalera joaten ziren haurrak, hots, herritik at. Hori funtsezkoa izan zen ikastolaren arrakastarako. Eta horrek berak bultzatu du, hein batean, ikastola herriko eskola bihurtzea; Lapuebla de Labarcan ikastola ez da inongo ideologiaren sinonimo, herriaren eskola baizik.

### **Pixkanaka-pixkanaka haziz**

1987an gaur egungo eraikin berria estreinatu zuten eta urte hartan bertan hasi ziren Batxilergoa es-

kaintzen. Hori erabakitzeke ere bilera ugari egin zituzten. Izan ere, inguruko beste ikastolak ere hazten ari ziren: Oiongoa, Bastidakoa... Eta horietako batean kokatu behar zen Batxilergoa. Azkenean, Lapuebla de Labarcan kokatzea erabaki zuten geografikoki hura zegoelako erdigunean.

1993. urtea, ikastola guztientzat bezala, urte klabea izan zen Assa ikastolarentzat. Batxilergoa ezarri ondoren galera ekonomikoek aurre egin beharrean zeuden, ez baitzuten ez kontzerturik ez finantziatorik. Horrekin batera, garai hartan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu zen Fernando Buesarekin ez zuten oso harreman ona: ez zuten finantziatorik, ikuskariak bidaltzen zituen sari-sari... egoera guztiz anormala zuten. Gauzak horrela, Aitor Urkiza ikasketaburuak gogoratzen duenez, publikatzeari bi desabantaila nagusi ikusi zitkioten. *“Bata, maite ez gintuen sailburu batekin egongo ginela, Biasterirekin batuko gintuela eta D ereduan euskararen alde egindako lan guztia lausotu egingo zela, hango eredia ez baitzen inolaz ere euskararen aldekoa. Eta bestea, gure autonomia galduko genuela. Horregatik, kontzertatuta*





**Garrantzitsua deritzote eskolaz kanpoko euskarazko ekin-tzak bultzatzeari euskararen erabilera aregotu dadin eta herrian presentzia gehiago izan dezan, eta horretan euskaltzale guztiek egin behar dutela lan azpimarratzen dute.**

*jarraitzeko ideia nagusitu zen, autonomia propioarekin eta funtzionatzeko era propioarekin, etorkizuna ez baikenuen batere argi ikusten publikatuz gero. Lan egonkortasun mailan bai agian, baina proiektu mailan ez”.*

Hamar urte geroago ikastolako proiektua finkatuta dago, nahiz eta oraindik kezka eta erronkak izan. Kezka ekonomiko nagusia garraioak sortzen die. Ikasleak Bianatik, Oiondik, Harotik, Logroñetik eta eskualdeko gainontzeko herrietatik joaten direla aintzat harturik, begien bistakoa da garraioak duen garrantzia eta kostua. *“Ikastolarentzat egiturazko*



Ezkerretik eskuinera: Joseba Llanos zuzendaria, Amaia Visa irakasle historikoa, Felix Ibañez lehendakariordea eta guraso sortzaileetako bat eta Aitor Urkiza ikasketa burua.

*defizit bat da” diote gurasoek. “Dagoen legediaren arabera, instituzio publikoek ezin dute eskola pribatu baten garraioa finantzatu eta guk egin behar diogu aurre kostuari. Dena den, Lantziegoko eskola publikoko ikasleak gure ikastolara etortzen dira Bigarren Hezkuntza egitera eta ondorioz diru zati bat jasotzen dugu”.*


Garraioaren arazo horrek eskolaz kanpoko ekintzetan ere eragina du. Garrantzitsua deritzote eskolaz kanpoko euskarazko ekintzak bultzatzeari euskararen erabilera ikastolatik at bultzatzeko, baina horrek, besteak beste, autobus zerbitzu gehiago eskatzen du eta memento ezinezkoa zaie.

### **Ikasleen euskara maila**

Ikasleek lortzen duten euskara mailagatik galdetuta, ikastolako irakasleek lortutako emaitzak eta frogak aipatzen dituzte. Joseba Llano zuzendariak dio *“herrian 27 urte-tik beherako gazte-  
ei euskaraz hitz egiten badiezu, %90ek ulertuko eta erantzungo dizu. Batxilergoko lehen pro-*

*mozioko ikasleek selektibitatea euskaraz egin zuten eta Euskal Herriko beste edozein herritako ikasleek bezain nota onak ateratzen eta euskara maila onarekin. Unibertsitateko ikasketak egin dituzten gehienek euskaraz egin dituzte eta gaur egun baditugu ikastolan lan egiten duten ikasle ohiak”.*

Ikastola barruan bi ekimen dituzte euskararen erabilera bultzatzeko: Euskaraz Bizi eta Euskara Taldea. Lehen Hezkuntzaren kasuan euskararen erabilera gelatik kanpo %80-90ekoa dela dio zuzendariak, etajolas orduetan, adibidez, euskaraz mintzatzen direla nahiz eta irakasleak aurrean ez egon. *“Bigarren Hezkuntzan ehuneko hori gutxitu egiten da. Adin horretako ikasleek eskola gauza akademikoarekin lotzen dute, eta gustatu edo ez, lanak, ebaluazioak, notak eta abar daude. Horregatik, maila horretan Euskara Taldea daukagu. DBHko 3. eta 4. mailetako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasle boluntarioekin osatutako taldea da. Nolabaiteko kontzientzia eta aldeko jarrera duten gazteak dira eta elkartu eta euskararen erabilera gehitzeko eta euskararen maila igotzeko dinamikak sortzen eta egiten dituzte. Adibidez, Gaztetxulo aldizkarian harpidetuta daude, beste Euskara Taldeekin harremanetan daude, beste herrietako gazte-*



Felix Ibañez lehendakariordea eta Miguel Rubio lehendakaria hasieratik daude ikastolako proiektuan buru-belarri sarturik guraso bezala.

*ekin elkartrukeak egiten dituzte..."*

Lan horrek beste lan osagarri bat eskatzen du, ordea: euskararen erabilera ikastolatik kanpora ere hedatzea. Argi daukate horren beharra dutela, euskara sozializatu behar dutela eta herrian presentzia handiagoa izan behar duela. *"Eskualdeko ikastolek beren proiektuetan lanean jarraitzen dute, baina euskaltzale guztiok kaleko erabilera areagotzeko lana egin behar dugu"* dio Aitor Urkizak. Behar horrek bultzata sortu dira, besteak beste: aisialdiko taldeak, begirale ikastaroak euskaraz, udalekuak, kaleko kartelak eta seinaleak euskaratzeko ekimenak...

### Hastapeneko oroitzapenak

#### Gurasoak

Oso garrantzitsua da orain dela 25 urte euskararik ez zekiten gurasoek orduan zegoen eskola ereduari muzin egin eta euren seme-alabak euskaraz ikasteko apustua egin izana. Izan ere, ez zituzten eskolaz kanpoko ekintzak nahi euskaraz, irakaskuntza bera eta osoa baizik.


Miguel Rubio ikastolako lehendakariak eta Felix Ibañez lehendakariordeak irribarrez gogoratzen dituzte urte haiek. Lan asko egin be-

har izan zuten, baina gustukoa zen eta denen artean egiten zutena. *"Arazoak sortzen zirenean, denok elkartzen ginen, guraso eta irakasle, eta elkarrekin ateratzen genituen gauzak aurrera"*. Hasierako urte haietako irakasleen lana azpimarratzen dute bereziki: *"Gurasoak irakasleen laguntza handia jasotzen genuen. Hemen irakasleek asko sufritu behar izan dute, asko. Gure lana bultzada ematea izan da"*.

### Amaia Visa Irakasle historikoa

Amaia ikastolaren bigarren ikasturtean joan zen Lapuebla de Labarcara, 1979an, eta oraindik ikastolan jarraitzen du. *"Nietorritakoan Balmoral fabrikara joan nintzen, hango jangela utzi batziguten nagusiek. Tabernan elkartzen nintzen haurrekin eta nik eramaten nintuen eskutik helduta fabrikaraino oinez. Zenbait egunetan, gurasoren bat furgonetarekin agertzen zen eta hark eramaten gintuen"*. Hasiera hartako oroitzapen onak dituela dio Amaiak. *"Oso polita izan zen. Hain animatuta zeuden gurasoak eta hainbesteko gogo jarri zuten egiten*

*ari ziren hartan! Gurasoek benetan sinesen zuten proiektuan. Edozertarako prest zeuden. Lekuren batera joan behar genuela esaten bagenien, beti agertzen zen norbait laguntzera"*. •







# TAKOLO PIRRI TX ETA PORRO TX

Poxpolin Marisorgin



**Nork dio sorginenak aspaldiko kontuak direla? Gurekin batera sorgin izan nahi duzu?**

Takolo, Pirritx eta Porrotxen abentura berriak zure herriko antzokian, kiroldegian, plazan, eskolan...  
Eskaintza bereziak ikastetxeentzat, 750 eurotik aurrera

**INFORMAZIOA ETA KONTRATAZIOAK**

Tel.: 943 362 346 / 629 349 715 • 118 Postakutxa • 20160 LASARTE-ORIA • [www.takolopirritxetaporrotx.com](http://www.takolopirritxetaporrotx.com)

